

# **IKASKUNTZA ZERBITZUA ETA GORPUTZ ADIERAZPENA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE BATEAN**

## **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Arin Ferre, Miren.

ZUZENDARIA: Vizcarra Morales, Maria Teresa.

**2020**

## LABURPENA

Gradu Amaierako lan honetan Lehen Hezkuntzako ikastetxe jakin bateko egoera eta beharrak kontuan hartuta, Ikaskuntza Zerbitzuaren metodologiaren bitartez, Gorputz Adierazpeneko esku-hartze bat aurrera eraman da. Esku-hartze honen parte izan dira eskolaz kanpoko ekintzak ordaindu ezin ditzaketen ikasleak. Lan honetarako Gorputz Adierazpenaren arloko sekuentzia didaktiko bat sortu da Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako ikasleentzako. Lan honen xede nagusia Gasteizko ikastetxe batean, non ikasleek eskolaz kanpoko ekintzak ordaintzeko zailtasunak dituzten, Gorputz Adierazpenarekin lotuta dagoen Ikaskuntza Zerbitzuaren berri ematea izan da. Bigarren helburuari dagokionez, modu dibertigarri eta esanguratsuan ikasleek Gorputz Adierazpenaren berri izatea da. Horretarako, aurrera eramaniko saioetan jasotako egunerokoaren bitartez, kategorizazio sistema erabili da edukiak analizatzeko. Laneko ondorioei erreparatuz, etorkizuneko irakasle formaziorako Ikaskuntza Zerbitzuak Gorputz Adierazpenarekin erlazionatuta ekar ditzakeen onurak eta baliagarritasuna ziurtatu da. Amaitzeko, lan honek izan dituen mugak eta hobekuntza proposamenak azaltzen dira.

**Gako-hitzak:** Ikaskuntza Zerbitzua, Gorputz Adierazpena, esku-hartzea, Lehen Hezkuntza, irakasleen formakuntza

## RESUMEN

En este trabajo de fin de grado se ha llevado a cabo una intervención de Expresión corporal a través de la metodología Aprendizaje Servicio teniendo en cuenta la situación y necesidades un centro de Educación Primaria. Parte de esta intervención han sido los alumnos que no pueden pagar las actividades extraescolares. Para este trabajo se ha creado una secuencia didáctica de la materia de Expresión Corporal para el alumnado de 1º, 2º y 3.º de Educación Primaria. El objetivo principal de este trabajo ha sido dar a conocer el Aprendizaje Servicio relacionado con la Expresión Corporal en un centro escolar de Vitoria-Gasteiz, donde los alumnos tienen dificultades para pagar las actividades extraescolares. El segundo objetivo es que de una manera divertida y significativa el alumnado conozca la Expresión Corporal. Mediante una narración del día a día se ha recogido información de las sesiones llevadas a cabo y para el análisis de contenidos se ha utilizado el sistema categorial. En las conclusiones del trabajo, se ha asegurado la utilidad y los beneficios que puede aportar el Aprendizaje Servicio para la futura formación docente en relación con la Expresión Corporal. Para finalizar, se exponen las limitaciones y las propuestas de mejora que ha tenido este trabajo.

**Palabras clave:** Aprendizaje Servicio, Expresión Corporal, Intervención, Educación Primaria, Formación del Profesorado

## **ABSTRACT**

In this final degree work an intervention of Corporal Expression has been carried out through the Learning Service methodology, taking into account the situation and needs of a Primary Education Centre. Part of this intervention has been for pupils who are unable to pay for extracurricular activities. For this work a didactic sequence of the subject of Corporal Expression has been created for students of 1st, 2nd and 3rd Primary Education. The main objective of this work has been to publicize the Service Learning related to Corporal Expression in a school in Vitoria-Gasteiz, where students have difficulty paying for after-school activities. The second objective is that in a fun and meaningful way students get to know Body Expression. A day-to-day narration has gathered information from the sessions held and the categorical system has been used for content analysis. In the conclusions of the work, the usefulness and benefits that Service Learning can bring for future teacher training in relation to Body Expression have been assured. Finally, the limitations and proposals for improvement that this work has had are presented.

**Key words:** Learning Service, Body Language, Intervention, Primary Education, Teacher Training

# Aurkibidea

1. SARRERA .....	4
1.1 Justifikazio pertsonala .....	4
2. MARKO TEORIKOA .....	5
2.1 Ikaskuntza Zerbitzua .....	5
2.1.1 Ikaskuntza Zerbitzuaren definizioa .....	5
2.1.2 Ikaskuntza Zerbitzuaren jatorria eta esperientziak .....	6
2.1.3 Ikaskuntza Zerbitzuaren ezaugarriak .....	7
2.1.4 Ikaskuntza Zerbitzuaren kontzeptua argitzen .....	8
2.1.5. Ikaskuntza Zerbitzuaren onurak .....	9
2.2 Gorputz Adierazpena .....	11
2.2.1 Gorputz Adierazpenaren kokapen historikoa .....	11
2.2.2 Gorputz Adierazpenaren definizioa .....	12
2.2.3 Gorputz Adierazpenaren ezaugarriak .....	12
2.2.4 Gorputz Adierazpenaren onurak eta garrantzia .....	13
3. HELBURUAK .....	14
4. METODOA .....	15
5. EMAITZAK .....	22
6. ONDORIOAK .....	34
7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK .....	37
8. ERREFERENTZIAK .....	38
9. ERANSKINAK .....	42

## **1. SARRERA**

### **1.1 Justifikazio pertsonala**

GrADU Amaierako lan honetan (GrAL) Ikaskuntza Zerbitzuan oinarritutako esperientzia azaltzen da. Ikastetxe batera joan naiz bolondres moduan, errekurso ekonomikoak ez dituzten umeei eskolaz kanpoko ekintza bat eskaintzera. Eskaini dudan formazioa Gorputz Adierazpeneko (GA) tailerra izan da hain zuzen ere. Hezkuntza-komunitateari zerbitzu bat eskaintzeaz gain, lan honetan zehar bizitakoaren analisia agertzen da ere.

GrAL honen testuingurua CPI Sansomendi IPI Ikastetxea izan da. Ikastetxe honen egoera ikasle askok eskolaz kanpoko ekintzak ordaintzeko ezintasuna da; beraz, ikastetxeak proposatuta, bazkal ostean GAREN arloko ekintza pedagogiko eta hezigarria eraman da aurrera. Zerbitzu hau dohainekoa izan da eta ikastetxeak eskainitako polikiroldegian eraman da aurrera.

Ikaskuntza Zerbitzua eta Gorputz Adierazpena gaia aukeratzearen arrazoiak anitzak izan dira. Alde batetik, Ikaskuntza Zerbitzuaren proposamena aurkeztu zidatenean gai hau niretzat guztiz ezezaguna zen eta metodologia berritzaile honen inguruan informazioa jasotzen joan nintzen heinean interesgarria, erakargarria eta etorkizun baterako ikasleekin jarduteko baliagarria iruditu zitzaidan. Izan ere, abentura berri honek niretzat berriak izango ziren ezagutza asko ikasteko aukera ematen zidan. Beraz, GrAL-a graduko titulua lortzeko egiten dugun zerbait bakarrik ez izateko, esperientzia berri honetan murgiltzea erabaki nuen. Horrela, GrAL-a egitearekin batera eta hezkuntza-komunitateari zerbitzu bat eskaintzearekin batera, irakasle izateko gaitasunak garatzeko aukera paregabea zela iruditu zitzaidan.

Gauzak horrela, aurrera eraman nahi nuen Ikaskuntza Zerbitzua Gorputz Hezkuntzarekin zerikusia zuen zerbait izatea nahi nuen, izan ere, aurreko Gorputz Hezkuntzako minorrean aritu naiz Lehen Hezkuntza graduko ikasketei amaiera ematen. Beraz, Gorputz Adierazpenaren inguruko zerbitzua aurrera eramatea erabaki nuen. Aukeraketa horren arrazoietakoa bat gai honek hezkuntzan eta batez ere, Gorputz Hezkuntzan duen presentzia eskasa izan da. Beste arrazoietakoa bat, gai honen inguruan informazio eta formakuntza gehiago eskuratu nahi izatea eta aldi berean, ezagutza horiek irakasle izateko gaitasunetan praktikara eramateko aukera izatea da.

Horrez gain, aipatzekoa da, esperientzia honetan murgiltzean, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko 24 ikaslek eta 7 irakaslek CBL (Campus Bizia Lab) proiektuan parte hartu dugula. Proiektu hau ekintza prozesu batean oinarritzen da, helburutzat duena ikasleen artean inpaktu handia izango duen praktika garatzea. Honekin batera, UNESCOk dituen Garapen Iraunkorrerako 18 helburuak lantzeko programa batean parte hartu dugu. Helburu horien

artean, gure helburua kalitatezko hezkuntza eskaintzea, genero berdintasuna bultzatzea eta desberdintasunak murriztea da.

Hurrengo orrialdeetan Ikaskuntza Zerbitzuaren eta Gorputz Adierazpenaren inguruko bilaketa bibliografikoaz gain Ikaskuntza Zerbitzua aurrera eraman den ikastetxe bateko taldearen esku-hartzearen inguruko informazioa aztertzen da ere. Era berean, bertako analisia aurrera eramateko erabili den metodologia, jarraitutako prozedura eta lortutako emaitzak agertzen dira. Azkenik, lan osoa aurrera eraman eta gero egindako hausnarketa eta ateratako ondorioak adierazten dira.

## **2. MARKO TEORIKOA**

Hurrengo lerroetan hainbat autoretan oinarrituta Ikaskuntza Zerbitzuaren inguruan hitz egingo dut; Ikaskuntza Zerbitzuaren definizioa, jatorria, esperientziak, ezaugarriak eta onurak azalduz. Honen ostean, GAren inguruko informazioa azalduko da, izan ere, bolondres moduan errekurtso ekonomikoak ez dituzten umeei, eskolaz kanpoko Gorputz Adierazpeneko esku hartze bat eta era berean zerbitzu bat ematera joan naiz.

### **2.1 Ikaskuntza Zerbitzua**

#### **2.1.1 Ikaskuntza Zerbitzuaren definizioa**

Ikaskuntza Zerbitzua definitzerako orduan, autorearen arabera modu desberdinetan definitu izan da. Ikaskuntza zerbitzua komunitatea eta ikaskuntza curricularra uztartzen dituen jarduera da. Proposamen didaktiko honek modu zirkularrean harremanetan jartzen ditu komunitateak dituen beharrianak, ezagutzak eta baloreak (Puig, Gijón, Martín eta Rubio 2011). Bestalde, Luna-k (2010:109) honako definizioa planteatzen du Ikaskuntza Zerbitzuaren inguruan: Ikaskuntza Zerbitzua filosofia eta irakaskuntza ikaskuntza metodologia gisa ulertzen du. Programa horien bidez, ikasleak hurbileko komunitatearen, auzoaren, hiriaren edo herriaren egunerokotasunean inplikatzeko dira, instituzionalki planifikatutako zerbitzu baten bidez. Aipatzekoa da, erakunde desberdinekin lankidetzan aritzen direla curriculum akademikoaren parte izanik (Luna, 2010). Aipu horren bitartez, autore honek Ikaskuntza Zerbitzua filosofia eta ikaskuntza-irakaskuntza metodologia bezala ulertzen duela adierazten du. Tapia-k (2000) bide beretik, Ikaskuntza Zerbitzua ikasleak protagonista diren hezkuntza proiektu solidariotzat definitzen du eta proiektu honen helburua komunitatearen premiei erantzutea eta, aldi berean, ikaskuntzen planifikazioa eta kalitatea hobetzea dela azpimarratzen du. Beste autore batzuen

arabera, Ikaskuntza Zerbitzuaren bitartez ikasleen ikaskuntza sustatzen da komunitate zerbitzuarekin lotutako esperientzietan aktibo parte hartuz (Puig eta Palos, 2006). Gezuragak eta Herrerok (2017) pedagogia honen helburua gizarteko eskakizunei erantzun egokia ematen duen hezkuntza lortzea dela azaltzen dute gazteak protagonistak diren heinean. Bestalde, Ochoa, Pérez eta Salinas-en (2018) arabera, Ikaskuntza Zerbitzuaren metodologia eskola aktiboaren ideietan oinarritu egiten da, ekintza ikasteko baldintza gisa proposatzen baita, eta esperientziak ikasleei hausnartzeko eta ezagutzak eraikitzeko aukera ematen baitigu. Horrez gain, aipatutako autoreek metodologia honen helburuetako bat herritarren prestakuntza dela adierazten dute, norbanakoak beren eskubideak sustatzeko eta sostengatzeko trebetasunak izatea eta bizitza justuagoa ahalbidetuko duten balioak praktikan jartzea bai kideekin bai ingurumenarekin. Horretarako, bizikidetza arauak adostea ezinbestekotzat dute. Hala ere, arauen alorrean, eskolaren paperaz gain, familien, hedabideen eta beste gizarte eragile batzuen lana funtsezkoa da ere.

### **2.1.2 Ikaskuntza Zerbitzuaren jatorria eta esperientziak**

Ikaskuntza Zerbitzua ez da gaur egun sortutako metodologia, horren jatorria aurretikoa da. Nahiz eta 1980. hamarkadan Ikaskuntza Zerbitzuaren lehenengo esperientziak kokatzen diren, 1990. hamarkadan izango da horren hedapenaren momentua iparraldeko eta Hego Amerikako testuinguruetan. Horien adibideak dira honako hauek (Luna, 2010, 87 or.):

- 1983-2004. National Yought Leadership Council of Minnesota
- 1994. Corporation for national and community: Learn and Serve America.
- 1990. Learn and Serve America´s National Service-Learning Clearinghouse (NSLC).

Europako testuinguruan berriz, Ikaskuntza Zerbitzuaren praktikek XXI. mendean dute bere lekua, sortutako erakunde eta programa desberdinen bitartez (Luna, 2010, 88 or.):

- 2002. European Service-Learning association.
- 2005. Forum- Cívico Educativo (Madrid).
- 2005. Centro Promotor de Aprendizaje Servicio (Barcelona).
- 2007. The first international conference on service learning in teacher education (Brussels).

Laburbilduz, esan genezake Ameriketako Estatu Batuek, Latinoamerika eta Europar Batasuneko herrialdeak direla Ikaskuntza Zerbitzuaren aitzindaritzat jotzen direnak. Hala ere, azken urteotan kontzeptu hau nazioartera zabaldu egin da (Luna, 2010).

Martínez, Martínez, Alonso eta Geruzaga-ren (2013) esanetan, Ipar eta Hego Amerikako testuinguruan, Ikaskuntza Zerbitzuko metodologiak 1990. hamarkadaren bitartean gorakada

eta ospea lortu egin zuen eta gaur egun unibertsitate mailan hedatzen hasi da. Izan ere, unibertsitateak ikasleentzako hezkuntza esanguratsuagoa eta interesgarriagoa garatzeko duen kezka erakusten ari da, hau da, hezkuntza formaleko curriculum eta komunitateak eskaintzen dituen aukerekin lotzeko aukera ikusten du. Espainia mailan ere, aipatutako metodologia pixkanaka goi mailako hezkuntzan sartzen ari da eta horren adibidea da, Euskal Herriko Unibertsitatean hasi berri den esperientzia berria, ikasleei zuzendutako hezkuntza eredu berritzaile baten garapena: Ikaskuntza Kooperatiboa eta Dinamikoa. Irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko, azken urteetan, programa desberdinak garatu izan dira, bakarka zein taldeka (Martínez, Martínez, Alonso, eta Gezuraga, 2013, 106. or.). Aurreko paragrafoaren harira, Martínez eta Martínez-ek (2015) azpimarratu egiten dute hezkuntza profesionalen hasierako prestakuntzaren kalitatea beharrezkoa dela, baina ez dela nahikoa. Horregatik, formakuntza aberasgarriagoa bilatu beharko litzateke, non herritarrek txiki-txikitatik haien hezkuntza prozesuan eta bizitza osoan zehar aukera eta laguntza eraginkorrak izan beharko lituzketen. Eta, gaur egun kontsideratzen diren ikaskuntza ezinbestekoetan parte-hartze aktiboa bilakatu beharko lirateke. Honekin batera, Root-ek (2005) 1990eko hamarkadaren erdialdean egindako ikerketa berrien arabera, Ikaskuntza Zerbitzuan parte-hartzen duten irakasle-ikasleek aniztasunaren gaiarekiko interesa areagotzen dutela aipatzen du. Horrez gain, irakaskuntzarekiko konpromisoa, estereotipoak murriztea eta arazoekiko sentikorragoak agertzen direla azpimarratzen du, egokitzapen curricularreko arazoekin esaterako. Bestalde, badirudi irakasle izateko ikasten dagoen ikasle batek Ikaskuntza Zerbitzuko esperientzietan parte-hartzen badu, etorkizuneko irakasle lanbidean jarduera horien sustatzaile-rola izatearekin lotura izango duela (Bates, 2009).

### **2.1.3 Ikaskuntza Zerbitzuaren ezaugarriak**

Dagoeneko Ikaskuntza Zerbitzuaren jatorria, izan duen hedapena eta esperientziak azalduta, ezinbestekoa da Ikaskuntza Zerbitzuak dituen ezaugarriak zehaztea. Horretarako, hainbat autore hartuko ditugu erreferentzia moduan. Tapia-rentzako (2006) Ikaskuntza Zerbitzuak honako ezaugarriak hauek izan behar ditu: Ikasleak protagonistak izatea; elkartasunez komunitateak duen benetako beharra asetzea (intentsio solidarioa); behar sozial bat asetzeaz gain, modu integratuan planifikatuta egotea ikaskuntza formaleko helburu eta eduki curricularrekin (intentsio pedagogikoa).


Bestalde, Furco-ren arabera (2014), metodologia honek bi aspektu hauek izan behar ditu. Alde batetik, ikaskuntza akademikoa curriculumaren helburuetan oinarrituta egon behar da. Bestetik, komunitatearekin lankidetzazko proiekturen bat gauzatu behar da. Azkenik, Luna-k



(2010) Ikaskuntza Zerbitzua izateko haien esperientzian oinarrituta honako ezaugarriak hauek azpimarratzen ditu: ikasleak protagonistak izatea; komunitateak duen beharrari modu solidarioan erantzutea; ikasleen curriculum programaren barruan planifikatuta egotea; ikasleen inguruko beharrezan erantzuten dien zerbitzu proiektu bat egitea eta hausnarketaz baliatzea, osagai kritiko bat izanik.

### 2.1.4 Ikaskuntza Zerbitzuaren kontzeptua argitzen

Behin, Ikaskuntza Zerbitzuak dituen ezaugarriak aipatuta, komenigarria izango litzateke argitzea Ikaskuntza Zerbitzua zer den zer ez den. Izan ere, askotan, Ikaskuntza Zerbitzuaren kontzeptua beste kontzeptu batzuekin nahastu egiten dugu. Sigmon-ek (1994) komunitateko jardueren honako sailkapena planteatzen du:



1.irudia: Komunitate jardueren sailkapena (Tapia, 2006:26))

Sigmon-ek (1994) komunitate jardueren sailkapenean honako kontzeptu hauek azpimarratzen ditu: boluntarioria, landa-lana, komunitate zerbitzua eta Ikaskuntza Zerbitzua. Jarraian, kontzeptu hauek argitzen saiatuko gara. Boluntarioria lanaren ezaugarri bereizgarri bat da zerbitzu asko eta ikaskuntza formal gutxi ematen dela (Luna, 2010). Beste autore batzuk honela definitzen dute boluntario lana: Bere nahitakotasun solidarioagatik definitzen da, baina ez da ikaskuntza formaleko integrazioerik garatzen. Noizbehinkako jarduerak dira, momentuko beharrez arduratzea helburu dutenak (Tapia, González eta Elicegui, 2005, 12 or.).

Landa lanari dagokionez, ikasleek parte-hartzen duten ikerketa jarduerak dira, beraien komunitateko errealitatearekin zerikusia dutenak, baina landa-lanaren xedea diziplinako edukiak ikastea izango litzateke. Esaterako, Natur Zientzietan erreserba ekologiko batera irteera bat egitea. Ekintza hauek errealitatearen ezagutza dakarte, baina ez dute errealitate eraldatzen edota ez diote komunitateari zerbitzu bat eskaintzen (Tapia, González eta Elicegui,

2005). Rubio-ren (2007) hitzek ere aurreko autoreak azaldutakoa azpimarratzen dute, hau da, landa lanak curriculum bateko eduki espezifikoean izango duela ardatza, beraz, komunitate bati eskainiko dion zerbitzua oso baxua izango da. Berriz, Komunitate zerbitzuak ekintza oso zehatzak eta sistematikoak dira. Ez dute elkartasun zerbitzuan benetako inplikaziorik bermatzen ezta ikaskuntza akademikoa eskuratzeko iturri bat osatzen ere (Luna, 2010). Ikaskuntza Zerbitzuari dagokionez, esperientzia batzuk dira, non kalitate handiko zerbitzuak eskaintzen diren eta horrekin batera, ikaskuntza formalaren gradu eta integrazioa maila altu bat ematen den (Tapia, González eta Elicegui, 2005). Rubio-k (2007) Ikaskuntza Zerbitzuaren ezaugarriekin jarraituz, Ikaskuntza Zerbitzuko proiektuek bost alderdi komun bete behar dituztela azaltzen du. Honako hauek dira baldintza horiek: ikaskuntza, zerbitzua, proiektua, parte-hartzea eta hausnarketa.

Ikaskuntzari dagokionez, ikaskuntza sistematizatuta izan behar da, aurrera eramango den zerbitzuarekin lotura izan behar du eta ondo zehaztu behar da zer ikasiko duten ikasleek egin aurretik, egin bitartean eta ondoren. Honekin batera, ikaskuntzak errealitatea ulertzen, beharrak diagnostikatzen, kalitatezko zerbitzua ematen, norberaren ekintzak berrikusten eta etorkizuna hobetzea du helburu. Gainera, Ikaskuntza Zerbitzuak diziplina arteko edukiak lantzeko eta zeharkako gaitasunak sustatzeko aukera eman behar du. Zerbitzuaren inguruan esan beharra dago, benetakoa izan behar duela eta inguru hurbilekoa edo globaleko benetako beharrei erantzun behar diela, betiere, egoera hobetzeko helburuarekin. Aipatutakoa lortzeko, ezinbestekoa izango da gizarte eragile desberdinen elkarlana (Rubio, 2007).

Proiektuari dagokionez, kalitatezko proiektua lortzeko beharrezkoa da proiektu pedagogiko argia, hezitzailea, planifikatuta eta hezitzailearen aldetik ebaluatutakoa izatea. Hau da, ez dugu Ikaskuntza Zerbitzua ikaskuntza egoera espontaneoekin nahasi behar (Rubio, 2007). Aurretik aipatu dugun bezala, Ikaskuntza Zerbitzuaren ezaugarri nabarmenetako bat ikasleen parte-hartze aktiboa da. Gauzak horrela, protagonismo horren intentsitatea, bai adinera heldutasunera eta gaitasunetara egokitu behar da. Amaitzeko, hausnarketari erreferentzia eginez, Ikaskuntza Zerbitzua aurrera eramatean une oro egindakoaz kontzientzia-hartzea ezinbestekoa da. Azken finean, gogoetaren bitartez ezagutza berriak osatzeaz gain, zerbitzuaren inguruan kontzientzia izatea eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko aukera ahalbidetzen du ere (Rubio, 2007).

#### **2.1.5. Ikaskuntza Zerbitzuaren onurak**

Behin, Ikaskuntza Zerbitzua zer den eta zer ez denaren inguruko kontzeptuak azalduta, metodologia honek ekar ditzakeen onurak adieraziko dira. Hasteko, Community Service-learning

Center-ek (2014) Ikaskuntza Zerbitzuak dituen ekarpen posible batzuk aipatzen ditu; horien artean, curriculumean txertatuta izanda edukien ulermen sakonagoa eta errealitatearekin erlazio bat izatera lagun dezake, lehen eskuko esperientziak sortzea, kontzientzia demokratikoago eta kritikokoago bat eraikitzea, arazoak konpontzeko trebetasunak garatzea, etab. Aipatutako abantailez gain, Luna-k (2010) beste onura batzuk azpimarratzen ditu ere. Horien artean, Ikaskuntza Zerbitzuak ikasteko bestelako estiloak errespetatu eta ikaskuntza kolektibo aberatsagoaren alde egiten du. Gainera, ikasleen sentsibilitate sozialaren garapena sustatzen du, izan ere, Ikaskuntza Zerbitzuaren bitartez komunitate bateko kide izatearen zentzua eta beharrezkoak diren alderdi horietan hobetzeko edo eraldatzeko konpromisoa bultzatzen dira. Baita ere, metodologia honek ikaslearen ahalduntzea bultzatzen du, prozesuaren zehar ikaslea protagonista delako eta, era berean, ikasleek erantzukizun handia dutelako erabakiak hartzerako momentuan eta hauen ondorioetan. Modu berean, metodologia honek zeharkako kompetentzien garapena bultzatzen du; adibidez, arazoak aztertzea eta hauen irtenbidea garatzea, talde lanean aritzea, ideiak aurkeztea, kritikoki pentsatzea, antolatzea, denbora kudeatzea, etab.

Aurretik aipatutakoa bat dator Rubio-k (2007) esaten duenarekin, Ikaskuntza Zerbitzua bultzatzean hainbat gauzen inguruan kontzientzia hartzea ahalbidetzen baitu. Hala nola, inguruan dugun pertsonen behar errealak ezagutzeko eta ulertzeko aukera ematen digu. Gainera, interes pertsonaletatik interes kolektiboetara igarotzeko aukera ematen digu, gizarte bidezko baten aldeko eraikuntzarako konpromisoa sustatuz. Gauzak horrela, aipatutakoa lortzeko modurik aberasgarriena eta errealena komunitateari eskaintzen zaion zerbitzu batean parte-hartzea da.

Horrez gain, Ikaskuntza Zerbitzuak curriculumeko ikaskuntza modu holistikoa bizitzea ahalbidetzen du. Horrela, ikasleek diziplina desberdinetako edukiak eta abileziak lotu egiten dituzte. Azkenik, irakaslearentzako ere esperientzia aberasgarria da, izan ere, esperientzia hezitzaile honek, konpromisoa dakar eta gizartearen eraldaketa egoera bati aurre egiten dio eta honen bitartez, herritarren kontzientzia eta erantzukizun soziala bultzatzen da (Luna, 2010).

Laburbiduz, Puig, Batlle, Bosch eta Palos-ek (2007) Ikaskuntza Zerbitzuak formazioaren aspektu desberdinetan onurak ekartzen dituela azpimarratzen dute. Hasteko, autore hauek esaten dute Ikaskuntza Zerbitzu batean parte-hartzeak akademikoki, sozialki, emozionalki eta hainbat trebetasun intelektual zein pertsonalen garapenean hobekuntzak dakartzala. Horrez gain, aurretik aipatu bezala, erantzukizun zibikoaren eta komunitateko parte-hartzearen areagotzea gertatzen da. Gainera, aipatzekoa da, Ikaskuntza Zerbitzuan parte

-hartu duten ikasleen aburuz haien formakuntzarako horrelako esperientzia batean parte-hartzea oso erabilgarria izan dela. Irakasleei dagokienez, emaitza positiboak egiaztatu izan dira ere. Irakasle batzuen arabera, Ikaskuntza Zerbitzuko proiektuaren parte izatean metodologia honen gainean izandako iritzia hobetzen da eta batez ere, profesional bezala asebetetzea eragiten du. Baita ere, zentroetako zuzendaritza-taldeek ere Ikaskuntza Zerbitzuaren inguruko iritzi ona dute, batez ere, sortzen den bizikidetasun giroari eta zuzentzen dituzten erakundeen lanei erreferentzia egiten diete. Era berean, irakasle taldeek eta ikasleek eskolaren inguruan duten irudia hobetzen da eta inguruneke gainerako eskariak eskolarekiko duten ikuspuntua positiboagoa ematen da (Puig, Batlle, Bosch eta Palos, 2007).

## **2.2 Gorputz Adierazpena**

Behin, Ikaskuntza Zerbitzuaren atal desberdinak azalduta, Gorputz Adierazpeneko saio batzuk garatzea aproposa iruditu zait Ikaskuntza Zerbitzuko proposamen honetan. Azken finean, GAren bitartez ikasle guztion inklusioa bermatzen da eta ez du hasierako teknika berezi bat ezagutzea eskatzen. Gainera, saio hauek ere emozioak kudeatzeko baliagarriak izan daitezke. Hortaz, hurrengo lerroetan, GAren berri emango dut honako puntu hauek kontuan hartuz: kokapen historikoa, definizioa, ezaugarriak, onurak eta garrantzia.

### **2.2.1 Gorputz Adierazpenaren kokapen historikoa**

Mugimendua bizitza osoan zehar irauten duen aldaketa prozesu bat da; amaren sabelean hasi eta heriotzara arte aldaketa amaigabeen bidez ematen dena. Gorputz Hezkuntza da eskola garaian mugimenduaren heziketaz arduratzen dena, mugimenduaren bidez heziz. Mugimenduaren bitartez, gizabanakoak bizitzako arlo guztietan errendimendu gaitasuna lor dezake: arlo sozial, kognitibo, motore eta emozionalean (Bolaños, 1991). GA antzinatik interesa piztu izan du, horren adibidetzat jo ditzakegu, Egiptoko kulturaren, Mesopotamiakoan, Indiakoan, Txinakoan, Kretakoan, Greziakoan, Etruriakoan, Erromakoan, Germaniarrean, kultura hebrearrean, eta zeltan Gorputz Adierazpenal izandako presentzia (Vizcarra, 2010). Aipatzekoa da, GA Gorputz Hezkuntzan txertatuta dagoela aspalditik, 1970eko Hezkuntza Orokorren Legearen ikuspegi pedagogikoetan, Adierazpen Dinamikoaren arloan zehazki, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko etapan. Agerraldi honek hezkuntza artistikoa gorputzaren bidez Gorputz Heziketaren eremuan sartzea ekarri zuen (Coterón eta Sánchez, 2010). Nahiz eta GAK Gorputz Hezkuntzan denbora daraman txertaturik esan beharra dago, Gorputz Hezkuntzako programazioetan GAK duen presentzia nahiko eskasa dela eta horrekin batera,

prestigio gutxi izaten duela Gorputz Hezkuntzako irakasleen artean (Robles, Abad, Castillo, Giménez eta Robles, 2013).

### **2.2.2 Gorputz Adierazpenaren definizioa**

Gorputz Adierazpenaren definizioa ematerako garaian autore ugari ikuspegi desberdin eta anitzetatik aztertu izan du. Arguedas-ek (2004) Gorputz Adierazpenari honako definizio hau ematen dio: GAK gizakiaren sormena, adierazpena eta komunikazio askea erraztu nahi ditu, betiere, gorputzaren ezagutza, espazioa, materialen kudeaketan eta bakoitzaren buruarekiko konfiantza sendotuz. Horretarako, garrantzitsua da ikasleek helduengandik egiten dutenarekiko motibazioa jasotzea. Bestaldea, Coterón eta Sanchez-ek (2010:119) GARI honako definizio hau ematen dio: GA mugimenduaren dimentsio adierazkorra garatzeko tresna pedagogikoa da. Bere praktikaren bitartez, gorputzaren bitartez lortzen den hizkuntza berri baterako atak irekitzen dira, mugimenduak sortzen duen energiaren lekuan. Gorputza mugimenduan dagoen bitartean, uneoro mezuak adierazten ditu era desberdinen bitartez; keinu, jarrerak, begiradak eta gorputzaren posizio aldakorrak adierazten dituen mugimenduak. Honekin batera, Ortiz-ek (2002) Castillock eta Rebollo-ren (2009) lanean zitatua hainbat egileren ekarpenetan oinarritutako GA kontzeptuaren hurbilketa egin du. Bere esanetan, Gorputz Hezkuntzaren eremuan GAK gizabanakoaren garapen integralari lagundu behar dio, gorputz-hizkuntzaren ezagutza eta garapena bultzatzen duten tekniken bitartez. Hau da, gorputzaren eta mugimenduaren bidez, gizabanako bakoitzaren barrukoa eta sakonena ezagutaraztea edo adieraztea eta, era berean, gorputzaren eta mugimenduaren erabilera indartzea komunikabide gisa. Ildo beretik, Arteaga-k (2003) Castillock eta Rebollo-ren (2009) lanean zitatua ere, GAREN inguruko beste definizio bat planteatzen du. Autore honen arabera, GA hezkuntzaren ikasgai bihurtzen da eta gizakiaren adierazpen gaitasunaren potentzialtasuna garatzeko erabiltzen da. Horrela, ezagutza pertsonala, pertsonen arteko komunikazioa eta gizabanakoaren barne-sentimenduen kanporaketa (komunikazioa) keinuen, jarreraren eta adierazpen-mugimenduen bidez ematen da.

### **2.2.3 Gorputz Adierazpenaren ezaugarriak**

Gorputz Adierazpenaren ezaugarriei dagokienez, Guerrero-k (2009) honako ezaugarri hauek aipatzen ditu:

- Gorputz adierazpena haurraren hizkuntza naturalena da, bizitzako lehen momentutik komunikatzeko baliabidea.
- Lengoaia espontaneo da, ez dauka finkatutako koderik.

- Sormenera eta bat-batekotasunera irekia da.
- Keinu komunikazioan ditu sustraiak, jolas sinbolikoak nabarmentzen diren artean. Hau da, haurrek beste pertsona, animalia edo gauza bat balira bezala jokatzeko dutenean.
- Gorputz adierazpenean eta adierazpen dramatikoan emozioak, tentsioak, munduaren eta pertsonen ezagutza eta errealitatearen pertzepzioa erakusten dira.

Arguedas-ek (2004) GAren ezaugarriekin jarraituz, arlo honek sormen-prozesua, adierazpena eta komunikazioa erraztu nahi diola gizakiari azpimarratzen du. Horretarako, Gorputz Adierazpenaren esperientzia aberasgarria lortzeko gorputza ezagutzetik, espazioa erabiltzetik, materialetatik eta auto konfiantza indartzetik abiatu behar gara eta horrekin batera, garrantzitsua da ikasleek irakasleengandik edo helduengandik jasotzen duen motibazioa.

#### **2.2.4 Gorputz Adierazpenaren onurak eta garrantzia**

GAren kontzeptuaren inguruko definizioak emanda, beste arlo garrantzitsu bati helduko diogu: Zergatik eman behar da GA hezkuntzan? Learreta, Ruano eta Sierra-k (2006: 13) galdera horren inguruko arrazoiak ematen dituzte:

- GAK norberaren irudiaz kontzientziatzeko, aitortzeko, balioesteko eta onartzeko balio du.
- GAren bitartez, gorputzean emozioak, ideiak, pentsamenduak, sententziak, sentimenduak, bizipenak eta abar gordetzeko eta igortzeko aukera ematen du. Horrela, auto-ezagutza, autoestimua eta autonomia handiagoa emanez eta norberaren buruari konfiantza handiagoa eskainiz.
- GAK gorputz aukera guztien onargarritasuna eta garrantzia aintzat hartzen du, bai mugimendua bai soinuaren alderdi kualitatiboetan, kuantitatiboan, formaletan, adierazkorrean, komunikatiboan eta sormenezkoan.
- GAK bat-batekotasuna, irudimena eta gorputzaren sormena garatzen ditu.
- GA diziplinartekotasunarekin erlazionatuta dago, hurbil dauden beste arlo batzuekin, hezkuntza artistikoa; gaztelania eta literatura: musika: plastikoa, etab.
- GAren bitartez lotsa alde batera uztea errazten du.
- GAK gorputza ezagutzen eta erabiltzen laguntzen du adierazpen artistiko eta kultural gisa.
- GAK gorputzarekin, osasunarekin, kontsumoarekin eta ingurumenarekin lotutako ohitura sozialak ezagutu eta kritikoki ebaluatzeko balio du.
- Laburbilduz, GAK garapen pertsonala bultzatzeko eta norberaren bizi kalitatea hobetzeko balio du.

Baita ere, Villada-k (2003, 143 or.) honela azpimarratzen du GAren garrantzia: Autore honen arabera, hezkuntzaren zeregina GAren garrantzia ikasleei entzuten eta arrazionalki sentitzeko gaitasunak garatzean oinarritzen da. Betiere, modu natural eta espontaneoz erantzunez, inolaz ere, beldurrez ezta inhibizioz. Gure helburua gazte ausart eta seguruak lortzea da eta horretarako barrualdea entzuteko gai izan behar dute; hots, diren bezalakoak ezagutzen eta onartzen. Horrela soilik aurre egin ahal izango dizkiete zailtasunei. Bestalde, Arguedas-ek (2004) GAK bai banaka bai taldeka umeen hazkunde integrala bultzatzen duela azaltzen du alderdi sozio-emozional, intelektual eta biologikoetan.

Amaitzeko, Stokoek (1967) adierazi zuen Rodríguez-en (2008) lanean aipatuta GAren bitartez gara daitezkeen helburu espezifiko batzuk; horien artean, sensibilitatea garatzea, adimenaren eta gorputzaren arteko dikotomia murriztea, irudimena aberastea eta garatzea, ikerketa-sena garatzea, norberaren segurtasuna eskuratzea, norberaren gorputza onartzea, ikasteko gaitasuna garatzea, proiektatzeko gaitasuna garatzea, jolasaren bidez gozamina lantzea, jarrera irekia eta gogoetatsua garatzea, kritikatzeko eta kritikatu izatea, eraldatzea, etab.

### **3. HELBURUAK**

Atal honetan Gradu Amaierako Lan honen helburuak azaltzen dira:


- 1- Lan honen xede nagusia Gasteizko ikastetxe batean, non ikasleek eskolaz kanpoko ekintzak ordaintzeko zailtasunak dituzten, GAekin lotuta dagoen Ikaskuntza Zerbitzuaren berri ematea da, jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak azalduz.
- 2- Nire etorkizuneko irakasle lanbiderako, Ikaskuntza Zerbitzuak ekar ditzakeen onurez eta baliagarritasunaz jabetzea. Baita ere, eskola errealitate desberdinak ezagutzea eta errealitate horietara egokitzea nire formakuntza aberaste aldera.
- 3- 1., 2. eta 3. mailako ikasleei Gorputz Adierazpena murgiltzeko bost saio esanguratsu burutzea eta era berean, ikasle guztien inklusioa bultzatzea da.
- 4- Ikasleek jolasen bitartez gorputzaren eta hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren bidez komunikatzeko eta adierazteko beharrezkoak diren jarrerak eta trebetasunak garatzea.
- 5- Lehen Hezkuntzako gradu osoan zehar eta bereziki Gorputz Hezkuntzako minorrean irakasle izateko eskuratutako gaitasunak esperientzia berri honetan garatzea eta praktikan jartzea.

## 4. METODOA

IPI Sansomendi Ikas komunitateak duen errealitatea ikusita, ikasle asko dira eskolaz kanpoko ekintzak ordaintzeko errekurso ekonomikoak ez dituztenak. Horren aurrean, nik argi neukan eskaini nahi nuen zerbitzua Gorputz Hezkuntzarekin zerikusia izango zuen zerbait izango zela. Hortaz, Gorputz Hezkuntzan GAK gaur egun duen presentzia gehiago merezi duela pentsatzen dudanez, gai hori lantzea erabaki nuen. Esan beharra dago, ez naizela Gorputz Adierazpenean aditua, baina Gorputz Hezkuntzako minorrean ikasitakoa martxan jartzeko aukera paregabea izan zitekeela pentsatu nuen eta gai hau eskoletara eramatea garrantzitsua ikusten nuen. Hortaz, Gasteizko CPI Sansomendi IPI Ikastetxera joan ginen bertako ikasketa buruarekin hitz egitera eta bertan, eguerdiko momenturako hainbat ekintza proposatu zizkiguten, horien artean dramatizazio tailer bat. Beraz, ikastetxe honek duen egoera eta beharrak ikusita testuinguru horretara egokitu naiz eta bazkal ostean 13:50etatik 14:50ak arteko tarte horretan Gorputz Adierazpeneko saioak eskaini ditut.

### 4.1 Eszenatokiaren deskribapena:

IPI Sansomendi Gasteizko Sansomendi auzoan dagoen ikas komunitate eskola da. Auzo honetako biztanleriaren maila soziala eta ekonomikoa baxua da eta honen barruan etorkin eta ijitoen kopurua altua da. Eskola honek 2 eta 16 urte bitarteko hezkuntza arautua eskaintzen du. Baita eskolaz kanpoko jarduerak ere, familien premiei erantzuteko zerbitzu eta instalazioekin. Eskola euskaldun, plurala, solidarioa eta integratzailea moduan definitzen da, eta horretarako irakasle, familia eta komunitateko partaide guztiak lan egiten dute.



2. Irudia. Ikasleen jatorria (CPI Sansomendi IPI-ko Hezkuntza Proiektua, 2018)

Lehen aipatu bezala, eskola honek hiru hezkuntza-etapa eskaintzen ditu eta hiru etapa hauek hiru eraikin ezberdinetan kokatuta egon arren, denak Sansomendi auzoan aurkitzen dira. Ikasle kopuruari dagokionez, Haur Hezkuntzan (HH) 84 ikasle, Lehen Hezkuntzan (LH) 143 ikasle



eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) 105 ikasle. Ikasleen jatorri eta kulturari dagokionez, gehienak Ijitoak, Nigeriarrak, Marokoarrak eta Argeliarrak dira. Bestalde, Ikastetxea Ikas Komunitate modura ezagutzen den proiektuan murgilduta dago. Proiektuaren xede nagusia gaur egungo informazioaren gizarteak hezkuntzari dakarzkion eskakizun eta betebeharrei erantzun egokia eskaintzea da; horregatik ikasle guzti-guztien “berdintasuna” eta “ikasketa-integrazio” erreala bultzatzen du; sexu, etnia eta kultura desberdinen arteko elkar ulertzea eta elkarbizitza ziurtatzeko beharrezkoak diren hezkuntza, kultura eta maila sozialeko eraldaketak eraginez.

Behin, ikastetxearen nondik norakoak azalduta, GAren inguruko zerbitzua aurrera eramateko taldean zentratuko naiz. Zerbitzu hau LHko 1., 2. eta 3. mailakoentzat zuzenduta dago, 7, 8 eta 9 urteko ikasleentzat. Esku hartze hau 40 minututako bost saiotan antolatuta dago. Talde honetan 12 ikasle daude, baina egunez egun ikasle kopurua aldatuz doa eta askotan, ikasle batzuk ez direnez etortzen beste batzuk gerturaten dira haien orde. 12 ikasle horietatik 10 neska eta bi mutil daude. Kultura ezberdinetako ikasleak daude taldean, hala nola, ijitoak, argeliarrak, nigeriarrak, marokoarrak eta kolonbiarrak. Esan beharra dago, nire saioetara gerturaten diren ikasleak eskola honetako haien irakasle-tutoreek aukeratutako ikasleak direla “ausartak” eta maila desberdinekoak direnez askok ez dute elkar ezagutzen. Ia guztiek euskaraz hitz egiteko zailtasunak ditu eta normalean haien artean gazteleraz komunikatzen dira. Hala ere, nahiz eta euskaraz hitz egiteko zailtasunak izan, ulertzerako garaian, modu argi eta motelean hitz eginez ez daukate inolako zailtasunik.


Zerbitzua aurrera eramateko erabiliko dudana espazioa gimnasio bat izan da, haiek Gorputz Hezkuntzako saioak aurrera eramaten dituzten espazioa hain zuzen ere. Espazioak laukizuzen baten forma du, ezkerreko aldean ikasle guztiak biltzen diren tokia aurkitzen da, bankuekin inguratuta dagoena eta gainontzekoa espazio libre bat da. Hormetan horma-barrak aurkitzen dira. Horrez gain, gimnasioan espazio ezberdinak aurki ditzakegu, biltegia, aldagelak eta komunak esaterako.

#### **4.2 Esku-hartzearen diseinua**

Aukeratutako proposamena Gorputz Adierazpenean oinarritzen da. Ikasleak talde txikietan edo banaka lan egingo dute egiten den jarduera motaren arabera eta helburua ikasleek gorputzaren bitartez adierazten ikastea izango da. Proposatuko diren jardueren bitartez, ikasle guztiek ikaskide guztiekin lan egiteko aukera izango dute. Azken egunean, ikasleek amaierako produktu bat egingo dute eta saiotik saiora egin duten garapena ikusteko momentua izango da. Aipatzekoa da, saioek honako egitura hau izango dutela. Proposamena aurrera eramateko

garaian, lehenengo egunean, esku-hartzearen inguruko aurkezpena egingo da. Saioen antolaketari dagokionez, hasieran beti beroketa txiki bat egingo da (aktibazio fasea). Ondoren, jarduera desberdinak egingo dira. Jarduera hauek progresio bat eramango dute, bai taldekatzeen aldetik bai zailtasun aldetik. Hau da, joko gidatuagoetatik, joko irekiagoetara igarotzen saiatuko gara, lehenengo jarduerak ez dute imajinazio askorik eskatuko, bukaeran, ordea, sormen gehiago eskatuko duten jarduerak proposatuko dira. Saioaren amaieretan, elkartzeko momentuan, denak biribilean jarrita irakasleak bideratutako hausnarketa txiki bat egingo da eta honen ostean, ikasleek autoebaluazioa eta koebaluazioa beteko dute. Ikasleen autoebaluazioa egiteko diana bat erabiliko dugu; diana lau zatitan banatuta dago eta zati bakoitzak galdera bat du. Honako hauek dira galderak: ondo portatu naiz? arauak eta kideak errespetatu ditut? ondo pasatu dut? zerbait ikasi dut? (ikus 6. eranskina). Ikasle bakoitzak 1etik 5erako zenbakietako bat aukeratu egin beharko dute hura margotu, 1 zenbakitik (txarto) eta 5 zenbakiraino (oso ondo).

Ondoren, ikasle bakoitzak taldeko muraletan bere ustez zein jarrerara izan duen adierazi beharko du, kolore bateko gometx baten bitartez; gorria, laranja, horia, berdea edo urdina. Kasu honetan, ikasleak jarrerara txarra izan badu gorria jarriko luke eta jarrerara oso ona izan balu berria, urdina. Amaitzeko, guztion artean talde moduan zer nolako jarrerara izan dugun adostu eta dagokion gometxa jarriko diogu..



3. Irudia. Ikasleen autoebaluazioa fitxa

Zerbitzua aurrera eramateko GAREN inguruko 5 saioko sekuentzia didaktiko bat sortu dut (Ikus 7. eranskina). Sekuentzia honetan zehar egingo diren jarduerak amaierako produktu batera bideratuak izango dira eta horretarako taldekatze mota desberdinak erabiliko dira. Hasierako saioetan zehar ikasleek adierazpenari dagozkion teknikak landuko dituzte: gorputzaren mintzaira, gorputzaren bidez emozioak eta sentimenduak adierazi, antzezpen txikiak, gorputz atalen kontrola eta jarrerara, pertsonaia edo egoera desberdinak imitatzea, etab. Lehendabiziko saioan, gorputz adierazpenean murgiltzen hasteko eta lotsak alde batera uzteko, “estatuak gara” eta musikaren erritmoan dantzan bezalako jolasak egingo ditugu eta baita, mimika jolas simple bat ere, ez hitzeko komunikazioa lantzen hasteko.

2. saioari dagokionez, gorputzaren ezagutza eta kontzientzia lantzeko, ispiluaren jolasa eta ondoren, egoera desberdinak antzezteko jolas desberdinak burutuko ditugu, “zoru desberdinak” esaterako. 3. Saioan berriz, GAren oinarrizko teknikak erabiliz, pertsonaiak, egoerak eta irudiak antzezten jarraituko dugu. Horretarako, “bikoteka aurkitzen” edo “filma antzeztu” jarduerak burutuko ditugu. 4. Saioari dagokionez, emozioak eta sentimenduak jende aurrean adierazi eta azaltzen jarraitzeko, saio honen atal nagusia, ikasleek nik emandako esaldi baten bitartez istorio txiki bat sortu beharko dute. Azkenik, 5.saioan ikasleek aurretik landutakoaren produktu txiki bat sortu beharko dute; ikasle bakoitzari egunkari orri bat emango zaio eta egunkari horrekin bakoitzak nahi duena sortuko du. Ondoren, 3 taldetan bilduko dira eta talde bakoitzeko kideek sortutako objektuekin istorio txiki bat sortu eta antzeztu beharko dute.

#### 4.3 Baliabide materialak eta informazioa jasotzeko tresna

Jarraian, zerbitzuan zehar erabilitako baliabide materialak eta baita informazioa jasotzeko tresnak zeintzuk izan diren azaltzen dira. Hasteko, zerbitzua aurrera eramateko zerbitzuaren programazio fitxa bat bete nuen (4.irudia), hasierako pausuak ematen joateko (Ikus 8. eranskina).

<b>Izenburua</b>	
<b>Eskola / Erakundea</b>	
<b>Zerbitzuaren helburua(k)</b>	
<b>Ekintzak</b> Helburua lortzeko egin beharreko ekintzen ezaugarri zehatzak. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbitzua prestatzeko.</li> <li>• Sarrera eskolan/erakundean eta taldean.</li> <li>• Zerbitzua martxan dagoen bitartean.</li> <li>• Itxiera.</li> </ul> Deskribapena: azpi-helburua, jarraibideak/pausoak, baliabideak (denbora, materialak...).	
<b>Kronograma</b>	
Ekintzen egutegia.	
<b>Data / Denbora-tartea</b>	<b>Ekintza</b>

## Dokumentazioa

Informazioa nola jasoko duzu?

*4.irudia:* esku-hartzea diseinatzeko erabilitako fitxa

Landa lanerako informazioa biltzeko hainbat tresna erabili ditut. Alde batetik, narrazio etnografikoa (egunerokoa), bertan, GAren saioetan zehar egindakoa, ikusitako eta hausnartutakoaren kontaketa egin dut. Izan ere, narrazio etnografikoaren bitartez giza talde bat bere testuinguruan, ingurune natural batean behatu daiteke non interakzio sozial desberdinak, sinesmen, balio eta arauak dauden deskribatzeko aukera ematen digun (Guerrero, 2014). Eguneroko horretan bizi izandako esperientziak, planifikazioari buruzko oharra, proposamen didaktikoaren martxari buruzko hausnarketak, eta zerbitzua erraztu edo oztopatu duten elementuen inguruan informazioa jaso izan dut egunero (ikus 9. Eranskina). Bestetik, egunero ikasleek betetzen zuten autoebaluazio bat ere erabili dut informazioa jasotzeko. Fitxa hau pasa aurretik, guztiok batera saioan bizitakoa komentatu egiten genuen, nola sentitu diren, zer izan da gehien eta gutxien gustatutakoa, nola pasatu duten, etab. Horrela, talde bezala, modu orokor batean haien *feed back*-a eskuratzen nuen.

Baita ere, gure zerbitzuaren azkeneko egunean ikastetxeko ikasketa burua, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakasle-zuzendariak eta bolondres moduan joandako ikasleen artean eskainitako zerbitzuaren balorazio bat egiteko elkartu behar ginen, baina Covid-19 birusaren ondorioz, ezin izan genuen gure azkeneko saioa burutu (5. saioa) ezta guztion artean balorazioa egin. Beraz, ikastetxeko ikasketa buruari zerbitzua baloratzeko galdetegia E-mailetik bidali genion (Ikus 10. eranskina). Horrez gain, ikasleekin egindako saioak ebaluatzeko errubrika burutu dut nire burua eta saioa ebaluatzeko. Bertan, hainbat esaldi agertzen dira eta horiek 1 etik 5 erako zenbakiekin adierazi behar izan ditut (1 gutxi eta 5 asko izanik) (Ikus 11 eranskina).

### 4.4 Prozedura

Atal honetan zerbitzua aurrera eramateko egindako pausuen deskribapena agertzen da kronograma baten bitartez. Bertan, unibertsitateko (formakuntzak eta bilerak) eta eskolan izandako bilerak eta saioak aipatzen dira. Hasteko, nire Gradu Amaierako Laneko (GrAL) tutorearekin harremanetan jarri nintzen eta berak Ikaskuntza Zerbitzuaren proposamena aurkeztu zidan. Hezkuntza eta Kirol fakultateko irakasle talde batek GrAL-aren formakuntza modu kolaboratiboan eta gidatuan egitea eskaini ziguten eta bakoitzak bere tutorearen jarraipena izatea bere lanean; hots, esperientzia berri batean parte hartzea proposatu ziguten eta hezkuntza-komunitateari zerbitzu bat eskaintzea lana egitearekin batera, eta gure gaitasunak

eskuratzerekin batera. Gauzak horrela, haien proposamendi baiezkoa ematea erabaki nuen. Honen ostean, hainbat formakuntza eskaini zizkiguten Hezkuntza eta Kirol fakultateko irakasle batzuk. Ondoren, nire zerbitzua aurrera eramango nuen CPI Sansomendi IPI Ikastetxeak aurrera eraman behar nuen sekuentzia didaktikoaren programazioa eskatu zidan zerbitzua aurrera eraman aurretik. Horretarako, ikasketa buruarekin elkartu eta aurretik planifikatutako programazioa eskaini genion eta ikastetxearen oniritzia izan genuen praktika egin baino lehen. Programazioa entregatu genuen egunean, zentrotik hainbat gauza eskatu zizkiguten. Hasteko, ikasketa buruak komentatu zigun, ikasleekin arauak ondo zehaztea beharrezkoa zela eta ahal izango bagenu ikastetxean eta bereziki gimnasioan dituzten arauak mantentzeko gomendatu zigun. Esaterako, gimnasioko koltxonetetan ezin direla ibili baimenik gabe, horma barrak ez ukitzea, txiklerik ezin daitekeela jan, etab. Ikastetxearekin lehenengo kontaktua izan ostean, astelehenero, gutxi gorabehera ordu bateko saioa eramaten nuen aurrera 1.2 eta 3. mailakoekin.

1. Taula. Zerbitzuaren kronograma

Data	Egitekoa
Irailak 30	GrAl-eko tutorearekin bilera
Urriak 1	1. formakuntza: Zer da APS eta 2 ikasleen testigantzak
Urriak 8	2. Formakuntza: Marko teorikoaren inguruko formazioa
Urriak 15	Lantxo txikia: Bilaketak, marko teorikoaren hezurdura eta horren laburpen txiki bat
Urriak 22	3. Formakuntza: Dokumentu akademikoetarako IKTak
Urriak 29	Lantxo txikia: GrALaren txantiloia eraiki
Urriak 29	Bilera: Elkartek eta horien beharrak ezagutu. Zalantzak argitu
Urriak 31	4. Formakuntza: Ikaskuntza-Zerbitzua egiteko plazen informazioa
Urtarrilak 21	Sansomendi ikastolan zuzendaritza taldearekin eginiko lehenengo bilera. Akta.
Urtarrilak 27	Sansomendiko ikasketa buruarekin batzarra (egindako programazioaren entrega)
Urtarrilak 28	5. Formakuntza: Metodoa
Otsailak 3	Lehenengo Saioa Sansomendin
Otsailak 10	Bigarren Saioa Sansomendin
Otsailak 17	Hirugarren Saioa Sansomendin
Otsailak 25	6. Formakuntza: Informazioaren analisisa
Martxoak 2	Laugarren Saioa Sansomendin
Martxoak 9	Bosgarren saioa Sansomendin (burutu gabe), zerbitzuari amaiera

Apirilak 21	7. Formakuntza: Ondorioak + ahozko defentsa
Apirilak 21	Sansomendiko ikasketa buruaren balorazio-galdetegiaren entrega

#### 4.5 Informazioaren analisia

Informazioaren trataerari dagokionez, sistema kategoriala erabili dut. Sistema kategoriala informazioaren barneko elementuko analisisan oinarritzen da eta sistema honetan atal guztiek interrelazio bat dute haien artean. Lehen mailako kategoria batetik abiatzen da, zeinek zientziaren egitura teorikoaren gainerako elementu guztiak biltzen dituen (Rendón, 2015).

2. Taula: Sistema kategorialen taula

<i>Dimentsioak</i>	<i>Kategoriak</i>	<i>Azpikategoriak</i>
Esperientzia eta anekdotak		
Planifikazioa	Aspektu metodologikoak	Arauek
		Denboraren kudeaketa
	Faktore erraztatzaileak	Espazio eta materiala
		Taldekatzeak
		Ikastetxea eta bertako langileak
Faktore oztopatzaileak	Ikasleen jarrera	
	Denbora	
	Ikasleen jarrera	
Proposamen didaktikoaren ebaluazio eta balorazioak	Ikasle berriak	
	Balorazioa pertsonala	
	Ikasleen balorazioak	
	Ikasleen zailtasunak	
Harremanak	Ikastetxearen balorazioa	
	Ikasleen arteko harremanak	
	Irakasle-Ikasle harremanak	
Sentipenak	Kezkak eta zalantzak	
Gertaera kritikoak	Hartutako erabakiak	

Horretarako, gai batzuen arabera kategoria batzuk sortu ditut eta 3 pausu bete behar izan ditut. Lehenengo, nire egunerokoan idatzitako informazioa antolatu eta ordenatu dut. Bigarrenik, informazio hori sailkatu: laburtu, elkartu eta ordenatu. Azkenik, sailkatutako materiala irakurri eta interpretatu dut.

Sistema kategorialaren 2. Taulan ikusten da nola dagoen antolatuta. Hasteko, bost dimentsio handitan banatuta dago; esperientziak eta anekdotak, planifikazioa, harremanak, sentipenak eta gertaera kritikoak. Dimentsio hauetako batzuk aldi berean, kategoria batzuekin elkarlotuta daude eta honek era berean, beste azpikategoria batzuekin erlazionatuta daude.

## 5. EMAITZAK

Atal honetan esku-hartzearen emaitzak aztertzen dira. Horretarako, esku-hartzean zehar jasotako informazioaren analisisa eraman da aurrera.

### 5.1. Esperientziak eta anekdotak

Zerbitzu honen bitartez irakasle formakuntzan esperientzia berri bat bizi izan dut eta horrekin batera anekdota batzuk ere. Eta bizitako esperientzia berri horiek nire irakasle formakuntza aberastu egin dute.

*Gaurko saioaren amaieran, talde osoa bilduta geundela, ikasleei zelan sentitu diren eta nola pasatu duten galdetu diet. Ikasle gehienek ondo pasatu dutela esan didate, beste batzuk jolas gehiago eta zailagoak nahi dituztela adierazi didate eta beste batek momentu oro “más ejercicio” egin nahi zuela esaten ibili da. (2020/02/10, egunerokoa)*

Zerbitzua Gorputz Hezkuntzako saioak burutzen dituzten leku berdinean eraman dugu aurrera. Egia da, ikasleek Gorputz Hezkuntza mugimenduarekin erabat lotzen dutela. Horregatik, askotan, ikasle askok mugimendu gehiagoko jarduerak eskatzen zizkiguten. Honen aurrean, ikasleek egingo genituen jardueretik ezinezakoa erakusten zuten, aurrera eramaten genituen jarduera gehienak haietzako ezezagunak zirelako. Bestalde, saiotik saiora pixkanaka-pixkanaka saioen dinamika moldatzen joan da haietzako hain aldakorra ez izateko, eta ohituta daudenarekin eta nik proposatutako jarduera berrien arteko lotura bat izan zezaten, betiere, jarduera erakargarriak planteatuz. Bestalde, saiotik saiora egoera desberdinen aurrean esperientzia berriak bizi izan ditut eta hori ere irakasle praktikarako aberasgarria izan da. Izan ere, irakasle moduan momentu batetik bestera aurreikusi ez dugun egoera berri baten aurrean aurkitzen gara eta momentuan bertan ahalik eta modu egokienean esku hartu behar dugu.

*Gaurko saioari “Buztana kendu” jolasarekin hasiera eman diogu. Jolas honetan ikasleak zapiak buztan moduan jarri dituzte prakaren atzeko aldean eta zapi horiek partaideen artean lapurtu behar zituzten. Buztanik gabe geratzean beste batengana abiatu zitezkeen buztan berri bat lortzera. Behin, jolasa hasita, ikasle bat gerturatu zait eta ea non jarriko zuen zapia galdetu dit, berak soinekua zuelako. Egoera berri horren aurrean soka bat gerrian jartzea ea ondo iruditzen zitzaion galdetu diot eta baiezkoa eman didanean berehala jolasten hasi da. (2020/02/17, egunerokoa)*

Aurretik aipatutako egoera horrek ezustean harrapatu ninduen, ez nuen aurretik horrelako egoerarik aurreikusi. Izan ere, ez nuen inongo dudarik ikasleak arropa erosoarekin etorriko zirela saioetara, baina ez zen horrela gertatu. Ikasleak momentu horretan ez zekien zer egin eta pixka bat urduri ikusi nuen. Azkenean, zelan konpondu genezakeen arazoa komentatzean

guztiz pozik jarri eta jolastera abiatu zen inolako zailtasunik gabe. Laburbilduz, anekdota ugari bizi izan ditut eta horiek nire irakasle formakuntza aberastu dute. Gainera, aipatzekoa da, 1., 2., eta 3. mailako taldeaz gain, ikastetxeak eskatuta laguntza ere ematen niola beste ikaskide bati bere taldearekin (4., 5., eta 6. Maila) eta horrek esperientzia gehiago bizitzeko aukera eman dit. Hau da, adin desberdinekin lan egiteko aukera izan dut, nire taldean ni irakasle gidaria izanik eta beste taldean laguntzaile rola hartuz.

## 5.2. Planifikazioaren inguruko hausnarketa

### 5.2.1. Aspektu metodologikoak

Arauk: Gizartean bezala Sansomendin ere arauak beharrezkoak dira elkarbizitzako funtzionamenduarekin aurrera egiteko eta geletan bezala gimnasioan ere arau batzuk aurki ditzakegu. Arau horiez gain, nik ere nire esku-hartzea aurrera zihuan heinean pare bat arau gehiago jarri izan ditut.

*Ikasketa buruak elkartu ginen momentutik azpimarratu zigun zer nolako garrantzia duten arauak ikastetxe horretan eta hasieratik ikasleei arauak zeintzuk diren azaldu behar zaizkiela eta horiek betetzen ez badituzte zer gertatu daitekeen adierazi. Beraz, beraiek dituzten arauak azaldu eta arazorik egotekotan berarengana abiatzeko komentatu zidan. (2020/02/03, egunerokoa)*

*Lehenengo egun honetan, saioaren hasieran gimnasioaren arauak gogoratu dizkiet ikasleei. Esaterako: ikasleak ezin dira horma-barretara igo ezta koltxoneta eremuetara gerturatu irakaslearen baimenik gabe, materialaren biltegira ezin daitezke sartu, txiklea ezin dezakete jan, euskaraz hitz egin behar dute, etab. (2020/02/03, egunerokoa)*

Arau hauek saioetan behin eta berriz errepikatu izan ditut, askotan ikasleek ahazten zituztelako. Horrez gain, bigarren egunean ikasle askok ez zuten jarrera egokia izan eta arau batzuk ez zituzten bete, esaterako, horma-barretara igo ziren. Horren aurrean, ikasleek izandako jarreragatik hurrengo saioetarako pare bat arau gehiago jartzea erabaki nuen: ikasle bakoitzak bi abisu izango zituen eta bi abisu hauek izanez gero, ez zuen saioan zehar gehiago parte hartuko. Baita ere, txistua jotzerakoan guztiok betiko lekuan elkartuko ginela komentatu nien eta honekin batera, guztiok elkartzean hitz egiteko txandak errespetatu behar zirela. Behin, arauak jarrita, ikasleek hirugarren saioaren hasierako momentutik arauak errespetatu zituzten eta horren bitartez, saioaren dinamika ere hobetu zen. Egia da, guztiok hitz egiteko elkartzen ginenean askotan ikasleek ez zituztela hitz egiteko txandak errespetatzen eta momentu batetik bestera ezarritako arauak ahazten zituztela, baina pixkanaka arau horiek barneratzen joan ziren



saiotik saiora. Hala ere, saioaren hasierako elkartzeko momentuan denon artean arauak berriro ere gogora ekartzen genituen.

Denboraren kudeaketa: Esku-hartzea aurrera eramaterako orduan, hasierako saioetan batez ere denboraren kudeaketari dagokionez, zailtasun handiak izan ditut. Planifikatuta nituen hainbat jarduera egin gabe geratu ziren. Azkeneko saioetan, denbora ondo kudeatu izan dut, jarduera gutxiago eta esanguratsuagoak aukeratzen.

*Gaur ere denboraren kudeaketari dagokionez arazoak izan ditut eta planteatutako jarduera bat egin gabe geratu da. (2020/02/10, egunerokoa)*

Egia esan, saio guztiak azkar batean igaro dira, konturatzen nintzenerako ikasleak klasera joan behar ziren eta askotan planifikatuta nituen jarduera batzuk praktikara eraman gabe geratu dira. Horren aurrean, hurrengo saioetarako jarduera gutxiago egitea erabaki nuen.

*Denboraren kudeaketa nahiko zaila iruditu zait zehazki noiz amaituko zen klasea ez nekielako. Hau da, jantokiko txanden arabera, ikasleak saiora arinago edo beranduago gerturatzeko ziren. Gainera, planifikatuta nituen jarduerak azaltzeko pentsatzen nuen baino denbora gehiago eman izan dut, azken finean, ikasleak ez daudelako horrelako ekintzak egitera ohituta eta egin beharrekoaren inguruan zalantzak eta galderak zituzten. (2020/02/10, egunerokoa).*

Argi dago, ikasleek esperientzia berriak bizitzen dituztenean eta haietara ohituta ez daudenean, irakasle bezala denbora gehiago erabiltzen dugula azalpenak edo egin beharrekoak azaltzeko, baina ezin daiteke esan alperrik galdutako denbora denik. Izan ere, benetan beharrezkoa da ikasleek jarduerak ulertzeko eta dituzten zalantzak argitzeko denbora tarte hori uztea.

Espazioa eta materiala: Nire zerbitzua Sansomendiko polikiroldegian aurrera eraman dut, haiek Gorputz Hezkuntzako saioak egiten dituzten espazioan hain zuzen ere. Beraz, ikasleek espazio hau guztiz ezagutzen dute.

*Gaur, urtarrilak 27, Sansomendiko ikasketa buruarekin batzartu naiz eta nire esku-hartzea aurrera eramateko zein espazio nahiago dudan galdetu dit. Bi aukera eman dizkit: musika gela edo gimnasioa. Argi eta garbi, musika gela baino espazio handiago behar dudala komentatu diot eta beraz polikiroldegia nolakoa den erakutsi dit eta aukera hori hautatu dut. (2020/0/27, egunerokoa).*

Aipatzekoa da, izandako espazioa nahikoa izan dela nire esku-hartzea egiteko eta ikasleek behar beste espazio izan dutela jarduerak eroso burutzeko. Egia hori, polikiroldegiaren iskina batean koltxoneten eremua zegoela eta batzuetan arreta galdu egiten zutela horra begira. Izan ere, asko gustuko zuten oinutsik bertan jolastea. Horren adibidea da ikasle batek esan zuena:

*Lehenengo egunean ikasleei polikiroldegira gindoazela esaten euren aurpegietan irribarre bat ikusi nuen eta ikasle batek hurrengo galdetu zidan: “Zer daukagu gimnasia (Gorputz Hezkuntza) eta koltxonetetara joan ahal gara? Mesedez...” (2020/02/03, egunerokoa)*

Ikasle horren galderari erantzunez esan nion, polikiroldegira jaisten ginenean hurrengo saioetan zehar zer egingo genuen azalduko niola. Erantzun horren aurrean, ikasleak interesa erakutsi eta gogotsu zegoela adierazi zuen bere jarreraren bitartez. Bestalde, aurrera eramandako esku-hartzean ia ez dut materialik erabili. Batez ere, nik eramandako bozgoragailua izan da gehien erabili dudana tresna. Komentatzekoa da, akustika aldetik, ez dela guztiz ondo entzuten oihartzuna dagoelako eta horrez gain, leihoak irekita badaude patioako zarata entzuten da eta horrek ikasleen arretan eragin negatiboa izan du. Izan ere, azalpenak ematen ari nintzen bitartean ikasle askok leihoetara begiratzen zuten eta ez zuten azalpenetan arreta jartzen. Honek, ikasleek arreta galtzea eragin du eta batzuetan azalpenak berriro ere errepikatzea eta era berean, denbora gutxiago izatea hurrengo jardueretarako.

Taldekatzeak: Sekuentzia honetan zehar taldekatze mota desberdinak erabili dira eta taldekatze motaren arabera emaitza desberdinak ikusi dira. Saiotik saiora ikasleak ikasle desberdinekin egoten saiatzen nintzen, hau da, ez betiko lagunekin. Horrela, ikasle guztiek haien artean elkar ezagutzeko aukera zuten.

*Gaur, martxoak 2, argazkilariaren jolasa egiteko ikasleak 2 taldetan banatu ditugu (5 ikasle eta 6 ikasle). Bi talde hauek nahiko desorekatuta geratu dira ausaz egin ditudalako. Talde batean, 2. eta 3. mailakoak zirenak elkartu egin dira eta beste batean berriz, ia lehenengo mailako ikasle guztiak. (2020/03/02, egunerokoa)*

Ausaz egiteagatik ikasleen artean adin aldetik desoreka nabaria egon da. Horrek ikasleek jarduera egiteko zailtasun gehiago izatea eragin du. Azken finean, maila desberdinetako ikasleak talde berean egoteak asko lagun dezake jarduera gauzatzeko momentuan. Esaterako, lehenengo mailako ikasleak zeuden taldean inork ez zekien paperean jartzen zuena irakurtzen eta beste taldean berriz, arazo gabe irakurri dute. Hortaz, taldekatzeak ausaz egiteko hautaketa ez da bat ere aberasgarria izan eta hanka sartze honen bitartez hurrengo baterako taldekatzeak egiterakoan kontu handiagoz egiten saiatuko naiz, orekatuak egon daitezten. Aipatzekoa da, taldeak egiterakoan batzuetan askatasuna uzten niela haiek euren kabuz antola zitezten. Beste batzuetan aldiz, nik neuk egiten nituen taldekatzeak eta batzuetan ikasle batzuk haserretu egiten ziren egokitutako taldea ez zutelako gogoko.

*Filmen jolasa egiteko, talde osoa 3 azpitaldetan banatu dut. Ikasleetako batek esan dit egokitu zaion kideekin egon nahi ez zuela eta beste talde batera joan zitekeen galdetu dit.(Otsailak 17, egunerokoa)*

Orokorrean, egindako taldeengandik ikasleen artean ez dira gatazka askorik gertatu eta nahiko ondo moldatu dira guztion artean jarduerak burutzen. Hala ere, horrelako egoera gertatzean ikaslea egokitu zitzaion taldean geratu behar zela esan eta talde horrekin jarduera burutzera animatzen nuen.

### **5.2.2. Faktore erraztatzaileak:**

Faktore erraztatzaileetako bat ikasleen jarrera izan da. Prestatutako saioak egiteko ikasleek izan duten jarrera azpimarratzekoa da. Jardueretan zehar ikasle guztien parte-hartzea nabaria izan da eta era berean, ikasle guztiek inplikazioa eta jardueretik interesa erakutsi izan dute.

*Azpimarratzekoa da zer nolako maitasuna ematen duten ikasle txikiek, normalean, saioaren hasieran, saioan zehar eta saioaren amaieran besarkada handiak ematen dizkirate. (2020/02/10, egunerokoa)*

Ikasleek saio guztietan transmititzen zuten ilusioak eta maitasunak asko laguntzen zuen saioa aurrera eramaterako garaian. Azken finean, haiekiko kontaktu horrek giro polita sortzeko aukera ematen zuen eta zenbat eta giro seguruagoa sortu orduan eta saio politagoa izaten zen. Gehienetan, ikasleak oso ondo eta gogotsu aritu dira proposatu dizkiedan jardueretan zehar. Horren adibidea da, amaitzeko ordua zenean jarduerarekin jarraitu nahi zutela.

*“1,2,3 Eguzki” jolasa egiten genbiltzala ikasleak primeran pasatzen ari ziren eta horren adierazle da ikasle guztiek aurpegian zuten irribarrea. Beraz, pare bat biderrez errepikatu genuen jolasa. (2020/03/02, egunerokoa)*

Aipatzekoa da, ikasle kopuru murriztua izateak ere talde giroa hobetzen lagundu duela eta era berean, irakasle bezala ikasleak gehiago ezagutzeko aukera eman dit.

Ikastetxea eta bertako langileak: Zerbitzu hau aurrera eramateko faktore erraztatzaileetako bat ikastetxea eta bertako langileak izan dira. Ikastetxera heldu nintzen lehenengo momentutik bertako langile guztiek niganako errespetua eta konfiantza erakutsi didate eta horrek asko erraztu du zerbitzua aurrera eramatea. Gainera, uneoro eskertu digute egiten ari ginen lana. Honako hauek izan dira batez ere zerbitzua errazten lagundu duten langileak: ikasketa burua, Gorputz Hezkuntzako irakaslea, atezaina, jantokiko arduraduna eta gainerako irakasleak. Baita ere, nirekin esku-hartzea egin duen beste irakasle laguntzaileak erraztu egin du zerbitzua burutzea.

*Gaur, otsailak 3, lehenengo eguna izanda, asko lagundu dit ikastetxeko langile desberdinek egindako harrera. Esaterako, ikasle guztiak etorri arte kontserjearekin eta ikasketa buruarekin egoteak asko lasaitu egin nau. Izan ere, lehenengo momentutik konfiantza eta laguntza eskaintzeko jarrera erakutsi dute.(2020/02/3, egunerokoa)*

Bestalde, harritu egin nau ikasleek eskolako langile zein irakasleekin duten harreman estua, horien artean, atezaina. Horren adibidea da, elkartzeko unean askotan berarekin hitz egiten aritzen direla eta haien artean harreman polita dagoela ikusten da. Aipatzekoa da ere, ikasketa buruak ikasle guztiak ezagutzen dituela eta hasieran haien inguruko informazio orokorra eskaini digula. Esaterako, ikasle batzuen familiaren egoera nolakoa den komentatu digu. Honen harira, ikastetxe honetan benetan egoera gogorretan dauden ikasleak aurkitzen dira, esaterako, errefuxiatuak izan diren ikasleak. Lehen aipatu bezala, ikastetxeko langile askok lagundu digute zerbitzua aurrera eramaten. Aipatzekoa da, zerbitzua eskaini behar genuen azkenengo egunean egoera berri baten aurrean aurkitu ginela eta bertako langileek ere momentu horretan laguntza eskaini zigutela.

*Gaurko eguna oso arraroa izan da. Ikastetxera heldu gara eta ez zeuden ikasleak, ikasle guztiak haien etxetara bidali dituzte COVID 19 birusagatik. Irakasleak eta bertako beste langileak bakarrik zeuden ikastetxean. Ikasketa burua ez zegoenez, bertako, irakasle batek gertatutakoa azaldu digu eta gure azkenengo saioa aurrera eramanez, ezin dugula komentatu digu. Beraz, zerbait behar izatekotan berarekin edo zuzendariarekin harremanetan jartzeko azaldu digu. (2020/03/09, egunerokoa)*

Beraz, zerbitzu honen azken saioa aurrera eramatea ezinezkoa izan zen eta momentu harrarte egindakoarekin eta bizitakoarekin lan hau burutu dut.

### **5.2.3. Faktore oztopatzaileak:**

Horien artean *denbora*: Saioa aurrera eramateko gutxi gorabehera 40 minutu genituen, baina momentu batetik bestera gauzak alda zitezkeen kanpoko faktoreengandik, hots, kontrola ezin genitzakeen faktoreengandik. Horien artean, denbora aurkitzen da.

*Gaurko saioan, denboraren kudeaketara nahiko zaila iruditu zait ez nekielako zehazki klasea noiz amaituko zen. Hau da, jantokiko txanden arabera, saioa arinago edo beranduago amaitu daiteke eta ondoren, hurrengo taldea etorriko da gure saiora. (2020/02/10, egunerokoa)*

Denbora saio guztietan zehar oso azkar igaro izan da eta saioak nahiko labur geratu izan dira. Egunetik egunera, jantokiko txanden arabera, 1., 2., eta 3. mailakoak batzuetan arinago edo beranduago iristen ziren. Beraz, batzuetan denbora gehiago genuen jarduerak burutzeko eta beste batzuetan justu samar ibiltzen ginen.

*Lehenengo eguna da eta 1.,2., eta 3., mailakoak espero genuen baino arinago jaitsi dira polikiroldegira jantokiko arduradunarekin. Momentu horretan berarengana gerturatu eta komentatu dit egunetik egunera txanden denbora aldatuz doala (2020/02/03, egunerokoa)*

Laburbilduz, saioa burutzeko zenbat denbora dugun ez jakiteak saioa aurrera eramateko faktore oztopatzaile bat izan da. Azken finean, horrelako kasuetan kanpoko faktoreetara egokitu behar izan gara, bigarren mailako planak pentsatu behar izan ditugu eta beti egoera posibleak aurreikusi, esku hartze egokiagoa egiteko.

*Ikasle berriak:* Saio bakoitzean saioa aurrera eramateko ikasle kopuru desberdinarekin aurkitu naiz. Gainera, ikasle berriak gerturatu dira etorri behar diren ikasleak arrazoi desberdinengandik ezin direlako etorri. Horrek, hasieratik guztia berriro ere azaltzea suposatzen du. Askoz ere dinamikoagoa izango litzateke saioa ikasle berdinak eta kopuru aldetik berdinak izango balira.

*Gaurko saiora ikasle berriak etorri direnez izenen errepasso bat egin dugu, arauak eta aurreko saioan egindakoa denon artean birgogoratu dugu. (2020/02/10, egunerokoa)*

Argi dago, ikasleak zenbat eta gehiago ezagutu orduan eta gehiago egokitu naitekeela haien interesetara eta haien beharretara, baina saiotik saiora ikasleak aldatzen doazenez, zaila egiten zait ikasle guztien izenez eta ezaugarriez gogoratzea.

*Gaur, ikasketa buruarekin elkartu garenean, azaldu egin digu aukeratu dituzten ikasleak "ausartak" saioetara joango direla, baina kasu batzuetan ikasleak gaixorik egotekotan edo beste zerbait gertatzen bada ikasle kopurua berdina izaten jarraitzeko beste ikasleren bat gerturatuko dela. (2020/01/27, egunerokoa)*

Gauzak horrela, batzuetan kopuru aldetik ere nahiko ikasle gutxi direla pentsatu dut, agian, ikasle gehiagorekin klaseak ematera ohituta nagoelako. Hala ere, asko laguntzen du ikasle kopuru murriztuarekin lan egitea, horrek ikasleak hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen duelako. Baina ikasleak saioz-saioz aldatuz joan direnez, zerbitzua aurrera eramateko faktore oztopatzaile bat izan da.

*Ikasleen jarrera:* Ikasleek zuten jarreraren arabera saioa erraztu edo oztopa zezakeen. Hau da, ikasleak zuen jarrerak eragina zuen saioaren dinamikan, modu positiboan zein negatiboan. Kasu batzuetan, ikasleen jarrera faktore oztopatzaile bat izan da, saioa aurrera eramateko zailtasunak jarri dituelako. Esaterako, azalpenak ematean haien artean hitz egiten bazeuden saioarekin jarraitzea ezinezkoa zen.

*Gaurko saioan ikasleak orokorrean nahiko berbati egon dira eta horrek saioa aurrera eramatea zaildu egin du. Askotan, azalpenen bitartean ikasle batzuk haien artean hitz egiten egon dira eta birritan gelditu behar izan dut azalpena. Gainera, borobilean eserita egon garenean eta galderak egin dizkiedanean ez dituzte txandak errespetatu ezta besteen ideiak entzun. (2020/02/10, egunerokoa)*

Normala da ikasleek haien artean hitz egiteko eta gauzak komentatzeko gogoak izatea. Horregatik, jardueratik-jarduerara eta saioaren hasieran eta amaieran txandak errespetatuz, nahi zuenak gainerakoekin zerbait parteka zezakeen. Komentatzekoa da, nahiz eta momentu zehatzetan ikasle batzuk jarrera okerra izan, saioetan zehar ikasleak orokorrean ondo aritu izan dira.

#### **5.2.4. Proposamen didaktikoaren ebaluazio eta balorazioak**

Nire balorazio pertsonalaren ikuspegitik, argi dago, saioak planifikatuta ditudan bezala gehienetan ez direla gauzatu. Hau da, saiotik saiora gertatutakoa ez zen agian aurretik buruan pentsatuta nuena eta askotan, aurreikusi ez nituen hainbat aspektu kontuan ez hartzeagatik saioen bidea ere aldatuz zihoan. Bestalde, saio guztietan segurtasun eta konfiantza giroa bermatu dela esan dezaket eta emozio positiboak nagusitu dira, poza besteak beste.

*Lehenengo eguna da eta “estatuak gara” jolasean ikasleen aurpegiak ikusterakoan irribarreak ikusten nituen euren aurpegietan, barrezka eta aldi berean disfrutatzen zeudela ikus nezakeen. (2020/02/03)*

Honekin batera, esan beharra dut ikasleak gustura eta disfrutatzen ikusi ditudala saioetan zehar. Jarduerak azaltzerakoan azalpen sinpleak eta euskara aldetik erraz ulertzekoak egiten saiatu naiz. Gainera, saioetan zehar ikasleak motibatzen eta behar izatekotan, *feed back*-a eskaini diet. Horrez gain, lortu nahi nuen helburuaren arabera jarduerari aldaerak sartzen eta aurreko saioan hobetzeko zeuden aspektuak kontuan hartzen saiatu naiz, betiere, jarduerak ikasleen garapen mailara egokituz. Bestalde, jarduerak aurreko saioekin lotura izan dutela esan dezaket eta modu progresibo batean planteatuta izan direla, azkeneko produktu batera bideratuta. Aipatzekoa da, denboraren kudeaketari dagokionez, hasierako saioetan arazoak izan nituela, baina saioak aurrera joan ahala arazo hori konpontzen ahalegindu naizela.

*Bigarren egun hau ez da espero nuen bezala atera baina hala ere ondo joan da eta atera diren arazoekin hurrengorako saioa hobetzen ahaleginduko naiz (2020/02/10, egunerokoa).*

Balorazio pertsonak osatzeko, aurretik egindako errubrika baten bitartez adierazitako irizpide batzuetan oinarritu naiz. Horrela, egunero, saioa amaitzerakoan galdetegi hori bete egin dut.

*Ikasleen balorazioak:* Saio guztietan zehar saioaren inguruko ikasleen balorazioa zein zen jakiteko hausnarketa txiki bat planteatzen nien. Galdera hauen bitartez: Zelan sentitu zarete? Gustuko izan duzue saioa? Zer da gehien eta gutxien gustatu zaizuena? Horrez gain, ikasleek autoebaluazio bat bete izan dute lau galderaz osatutakoa eta horrek ere niri saioaren inguruko informazioa eman dit. Honako galdera hauek erantzun dituzte: ondo portatu naiz? arauak eta kideak errespetatu ditut? ondo pasatu dut? zerbait ikasi dut?

*Gaurko saioaren amaieran, talde osoa bilduta zelan sentitu diren eta nola pasatu duten galdetu diet. Ikasle gehienek ondo pasatu dutela esan didate, beste batzuk jolas gehiago eta zailagoak nahi dituztela adierazi dute. Aipatzekoa da, ikasleek egindako autoebaluazioan (dianan) ikusi daitekeenez, balorazio orokorra oso ondo pasatu dutela izan da. (2020/02/10, egunerokoa)*

Ikasle gehienak saioetan zehar gustura ibili direla adierazi didate hausnarketa gidatuaren bitartez egindako galderetan eta egindako autoebaluazioan. Saioaren amaieran, oso ondo pasatu zutela komentatzen zuten eta gehienek, mugimenduzko jardueretan energia guztiarekin inplikatzeko zirenez, nahiko nekatuta amaitzen zuten. Orokorrean, autoebaluazioan egindako galderetan honako emaitzak lortu dira: Ikasle gehienak ondo portatu direla adierazi dute eta horrekin batera arauak eta kideak errespetatu dituztela. Lehen aipatu bezala, ea ondo pasatu duten galderari erantzunez ikasle gehienek “5” zenbakiarekin puntuatu dute, galdetegiaren zenbakirik altuena. Azkenik, ea zerbait ikasi duten galderari dagokionez, aurreko galderekin alderatuz, puntuaketa baxuena duen galdera izan da, “3” edo “4” zenbakiarekin.

*Ikasleen zailtasunak:* Esku hartze osoan zehar ikasleek hainbat zailtasun izan dituzte. Horien artean, batez ere hizkuntzaren aldetik, euskaraz hitz egiteko eta askok irakurtzeko zailtasunak adierazi dituzte. Horrez gain, GARI dagokionez, hitzik gabe komunikatzeko eta espazioan kokatzeko arazoak izan dituzte.

*Ispiluaren jolasaren zehar, bitxia iruditu zait, rol aldaketa esatean, ikasle guztiak lekuz aldatu egin direla eta ez zuten zertan espazioz aldatu behar, rola bakarrik. Beraz, lehenengo zikloan espazioa rolaekin aldatzearekin bat ikusten dute. Behatutakoaren bitartez, ikasle batzuk alderantzizko ispilua egin dute, hau da, nire kideak ezkerreko hanka altxatzen bazuen, ispiluak ere ezkerreko hanka altxatzen zuen, eskuineko hanka izan beharrean, beraz, momentu horietan esku hartu dugu zelan egin behar zuten adieraziz. Adin honetan oraindik ikasle askok lateralitatearekin zailtasunak dituztela antzeman da. (2020/02/10, egunerokoa).*

Aurrekoarekin batera, nik planteatutako ekintza asko ikasleek ez zituzten ezagutzen eta hauen aurrean askok zailtasunak izan dituzte. Esaterako, antzezpen txikiak egiten genituenean espazioaren kokapenarekin arazoak zituzten; batzuk, espazioaren erabilera modu urri batean

erabiltzen zuten, beste batzuk ordea, espazioari erabilera handiagoa ematen zioten bere osotasunean. Horrez gain, askok antzezpenean zehar, publikoari bizkarra ematen zioten. Bestalde, hizkuntzaren aldetik, ikasle gehienek zailtasunak izan dituzte mimika jolasean zeuden txartelak ulertzeko. Izan ere, 1. mailan dauden ikasle asko aurten hasi dira irakurtzen ikasten, horregatik oraindik zailtasunak dituzte irakurtzeko.

*Berriro ere denak elkartu garenean, hurrengo jolasari ekin diogu. Talde osoa batera, ikasle bakoitzari txartel bat eman diot animalia "bikotea aurkitzen" jolasean ikasle bakoitzari txartel bat eman diot, eta txartelean animal baten izena jartzen zuen. Ikasle bakoitzak zuen animalia hori imitatu behar zuen eta bakoitzak bere bikotekidea aurkitu, hau da, bere animalia berdina duen beste ikasle bat. Hauek izan dira txarteletan jarritako animalien izenak: Txakurra, katua, behia, sugea eta tximinoa. Konturatu naiz ikasle batzuk (1. mailakoak) oraindik irakurtzen ez dakitela beraz kasu hauetan lagundu egin diet. Agian, hurrengo baterako, animaliaaren hitzaz gain animalia horren argazkia jartzea lagungarria izan daiteke irakurtzen ez dakiten ikasleentzako. (2020/02/17, egunerokoa)*

Hiru aldiz egin genuen jarduera hau eta ikasleei asko gustatu zitzairen. Jarduera hau egiterako orduan animalia errazak jartzen saiatu nintzen, hala ere, ikasleek zailtasunak izan zituzten txartelean jartzen zuena ulertzeko. Behin, txartelean jartzen zuena ulertuta nahiko ondo aritu ziren animalia hauek imitatzen. Txakurra, behia eta katua animaliak egokitu zitzaizkienean, lau hanketan aritzen ziren eta bakoitzak egiten zituen soinuak imitatzen zituzten. Sugeari dagokionez, arrastaka mugitzen ziren, baina soinua imitatzeko zailtasunak izan zituzten. Azkenik, tximinoa egiteko, pixka bat makurtu egiten ziren eta soinu desberdinak egiten zituzten. Batzuetan, nahiko arin aurkitzen zituzten beraien bikotekideak, baina beste batzuetan berriz, lau pertsona geratzen zirenean ez zekiten nor zen haien bikotekidea, ia guztiek antzeko imitazioak egiten baitzituzten.

*Ikastetxearen balorazioa:* Esperientzia honi amaiera emateko CPI Sansomendiko IPI ikastetxeko ikasketa buruari zerbitzua balioztatzeko galdetegi bat bidali nion eta esan dezakegu, Sansomendi ikastetxetik egindako balorazioa oso ona izan dela.

*Zerbitzu honen bitartez, ikasleen elkarbizitza eta euskararen erabilpena sustatu da. Gainera, irakasleak egindako programazioa oso egokia izan da eta edukiak ondo landu dira. Baita ere, irakasleak adierazi duen jarrera bikaina izan dela adierazi du. (2020/04/27, galdetegia).*

Aurrera eramandako zerbitzuaren abantailez gain, Sansomendi ikastetxeko ikasketa buruak adjektibo pare baten bitartez honela balioztatu du egindako zerbitzua ere: Aberasgarria eta elkarbizitzarako bikaina.



### 5.3. Harremanak:

*Ikasleen arteko harremanak direla eta, zerbitzu honetara gerturatu diren ikasleak lehenengo, bigarren eta hirugarren mailakoak izan dira. Gauzak horrela, askok ez dute elkar ezagutzen, baina saioetan zehar ezagutzen joan dira eta eman diren harremanak onak izan dira, ez dira gatazka handirik gertatu haien artean.*

*Mimika jolasa egiten ari ginenean binaka jarri behar zirenean, ikasleetako batek “con esa” esan du. Momentu horretan, garbi ikusi da, beste ikaslea ezagutzen ez zuela eta agerian utzi du adin ezberdinen arteko botere harremanak, izan ere, “con esa” esan duen ikaslea beste ikaslea baino nagusiagoa zen.(2020/02/3, egunerokoa)*

Saioak aurrera joan ahala ikasleak haien artean elkar ezagutzen joan dira. Argi dago, saiotik saiora aste eta askok izenak ere ahazten dituztela, denbora tarte luzea baitago saiotik batetik bestera. Komentatzekoa da, ikasle batzuk elkar ezagutzen dutela gela berdinekoak direlako eta gauzak horrela, elkarrekin aritzen dira saioan zehar. Komentatzekoa da, ikasleen ezaugarriei dagokionez, ikastetxe honetan jatorri ezberdinetako ikasleak aurkitzen direla eta oraindik ere absentismo kasuak daudela.

*Egun batetik bestera ikasle bat beste eskola eta beste herri batera joango dela azaldu digu eskolako ikasketa buruak eta ez dela gure saioetara gehiago etorriko. Gainera, komentatu digu, horrelako kasuak urtean zehar asko izaten dituztela. (2020/02/17, egunerokoa).*

Egun horretan ikasle bat nahiko triste ikusi nuen eta zer gertatzen zitzaien galdetu nionean, bere lagun minenatariko bat eskolatik joan zela azaldu zidan eta horregatik triste zegoela. Egoera hau ikusirik ikaslea animatzen saiatu nintzen. Aurretik aipatu bezala, maila sozio ekonomiko baxuko familiek osatzen dute eskola hau. Horietako askok ez dira egoera egokietan bizi eta ikasturtean zehar ikasle askok eskolatik alde egiten dute gurasoek beste lekuren batean lana aurkitu dutelako edo beste arrazoi batzuegatik. Gainera, oraindik, ikasle asko ez dira egunero eskolara joaten, hau da, ez dira ikasle permanenteak eta abstentzio kasu ugari daude.

*Irakasle-ikasle harremanari dagokionez, irakasle moduan ikasleekin konfiantzazko giro bat sortzen saiatu naiz, zerbait behar izatekotan niregana gertura zitezten. Horrez gain, haiekin batera parte-hartu dut jarduera batzuetan eta horrek gure artean harreman polit bat sortzea eragin du.*

*Gaur, Otsailak 3, “Estatuak gara” jolasean zehar, ikasleekin dantzan eta jolasean ibili naiz, ikasleak motibatzen eta dinamikara murgiltzen laguntzen eta konfiantza giro bat sortzen (2020/02/3, egunerokoa).*

Hasierako jolasetan, beroketa atalean, ikasleekin aritu izan naiz eta horrek haiei ere lotsak alde batera uzten lagundu die. Horrez gain, momentu oro haien laguntza behar izatekotan hor nengoela erakusten saiatu naiz gertutasunaren bitartez eta horrek harreman estuagoa sortzen lagundu du.

#### **5.4. Sentipenak, kezkak eta zalantzak**

Esperientzia berri honen aurrean kezka eta zalantza asko izan ditut eta horrekin batera, erabakiak hartzerako garaian dilemak izan ditut: nola egin, ondo egin dudan, horrela egitean zelan erantzungo duten ikasleek, etab.

*Saioaren hasieran, pixka bat urduri egon naiz ea zelan aterako zen pentsatzen. Honelako kezkak nituen: Nolako izango da taldea? Onartuko naute? Dena ondo aterako da? Ulertuko naute?. Hasierako beldurtxo horiek beti izan ohi ditut esperientzia berri baten aurrean baina behin ikasleekin lehenengo kontaktua izanda urduritasunak alde batera utzi ditut eta haiekin batera disfrutatzen hasi naiz.(2020/02/3, egunerokoa)*

Gertaera horien aurrean, askotan, irakasle moduan ez dakigu zelako esku-hartzea egin eta dilemak sortzen dira egindakoaren edota hartu behar dugun erabakien aurrean. Hala ere, gertaera hauek ere gure irakasle formakuntzarako esanguratsuak dira. Horren adibidea da, jolas bat azaltzen ari nintzen bitartean bat-batean gimnasioko leihotatik patioan zeuden ikasle batzuk leihotatik molestatzaren hasi ziren hura. Momentu horretan, leihotatik zeuden ikasleek ez zuten jaramonik egiten eta nire saioa eten egin zuten. Une horretan, ezin nituen ez ikasleak polikiroldegian bakarrik utzi, saioa aurrera eramaten saiatu nintzen eta azkenean, ikasle horiek leihotatik alde egin zuten. Horrez gain, saio bakoitzean kezka desberdinak izan ditut eta horien bitartez hurrengo saioetarako hobekuntzak egiten saiatu naiz. Kezketako bat adibidez honako hau izan da; egokitutako taldean bi mutil bakarrik zeuden eta bikotetako jardueretan haiek biak elkarrekin jartzen ziren eta horren aurrean, kezkak eta zalantzak izan ditut. Agian, jarduera batzuetan bikotekideak nik egin beharko nituzke, ikasle guztiak ikasle guztiekin harremanetan egon daitezkeen eta ez beti bikotekide berdinarekin.

#### **5.5. Gertaera kritikoak eta hartutako erabakiak**

Saioetan zehar egonezina sortzen duen praktika profesionaleko gertaera ugari egon dira. Gertaera adierazgarri horiek egunerokotasunean gure esperientzia pertsonaletik ateratako gertaerak dira zerbaitengatik harritu gaituztenak eta hausnartzeko aukera eskaintzen digutenak.

*1., 2., eta 3. mailakoak (11 ikasle) jangelatik etorri direnean ikasle gehienak pozik zetozela zirudien batzuk izan ezik. Ikasle horiei zer gertatzen zitzaien galdetu diet eta haien lagunekin egon naizela azaldu didate. Horren aurrean, azaldu diet, gurekin egotea ez dela derrigorrezkoa baizik eta ausartak izateagatik aukeratuak izan direla bost astelehenetan gurekin egoteko. Horren aurrean, ea nork ez zuen berriro ere etorri nahi galdetu diet eta ikasle batek eskua altxatu egin du. Ikasle hori nahiko triste ikusi dudanez, animatzen saiatu naiz, baina ez zuen jardueretan parte hartu nahi. Gauzak horrela, nirekin dagoen laguntzailea jantokiko zaintzailerengana abiatu da ikasleak bertan ez zuela egon nahi azaltzera eta nik saioarekin jarraitu dut. (2020/02/17, egunerokoa)*

Hala ere, horrelako gertaerak ez ohikoak izan dira eta ikasleak gehienetan gogotsu etortzen ziren saioetara eta zer egingo genuena jakiteko irrikitan zeudela adierazten zuten.

## **6. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK**

Egunerokoa aztertuta saioetan zehar egonezina sortzen duten praktika profesionaleko gertaera ugari egon dira. Alcaraz-ek eta Padilla-k (2004 ) gertaera adierazgarriak koherentzia faltagatik edo ezusteko emaitzengatik zalantza, ustekabea edo egonezina sortzen duten praktika profesionaleko gertaerak direla diote. Hauek egunerokotasuneko praktikako gertaerak dira esperientzia pertsonaletik ateratakoak, harritu gaitzake onerako zein txarrerako, baina guran gogoetarako bidea dira. Beraz, espero ez dugun gertaera eta berehalako erantzuna eskatzen duen gertaerari gertaera adierazgarria deritzo. Era berean, aipatu beharra dago, gertaera adierazgarriak gure lanaz hausnartzeko eta gure akatsetatik ikasteko baliagarriak direla. Horrela, etorkizunean berriz ez gertatzea ziurtatuko dut. Gainera, egunerokoa aztertuta, irakasle bezala aritzean egoera desberdinen aurrean kezkak eta zalantzak eta erabaki horien aurrean dilemak izan ditut. Dilema horiek irakasle izateko gaitasunak lortzeko ezinbestekoak dira, azken finean, praktikaren bitartez eta zenbat eta esperientzia gehiago izan orduan eta aberasgarriagoa da gure formakuntza. Díaz-en (2006) arabera, praktikarako gogoetak irakasle ikertzailea eraikitzen laguntzen du. Beraz, irakasleak bere praktika pedagogikoaren gainean hausnartu behar du hura hobetu eta indartzeko.

Honekin batera, eskaini dudana Ikaskuntza Zerbitzua esperientzia hezitzaile aberasgarria izan da. Azken finean, eskola batek eskolaz kanpoko ekintzekin duen egoera ikusita bertan nire alea jarri dut aurrera eramandako zerbitzuaren bitartez. Luna-ren (2010) hitzekin bat eginez, Ikaskuntza Zerbitzuaren bitartez, herritarraren (nire) kontzientzia eta erantzukizun soziala bultzatzea lortu dut. Bestetik, egunerokoa aztertuta aipa dezakegu faktore erraztatzaile bat ikasle kopurua eta hauek adierazi duten jarrera eta jardueretikiko gogoia izan dela. Gainera,

zerbitzua aurrera eramateko nuen espazioa kalitatezkoa eta egokia izan denez, horrek jarduera desberdinak egiteko aukerak eskaini dizkit. Horrez gain, ikastetxearen partetik eskainitako laguntza ere ezinbestekoa izan da zerbitzua aurrera eramateko; irakasle tipologia, zuzendaritza, kontserjea, eta bestelako eskolako partaideak. Jorret-ek, González-ek eta Sánchez-ek (2014) faktore horiek adierazi zituzten irakaskuntzan eragiten duten faktoreen inguruko ikerketan.

Faktore oztopatzaileei dagokienez, zerbitzua egiterakoan ikasle desberdinak etortzen ziren eta horrek saioen arteko lotura eta dinamika zailtzen zuen. Egia da, ikastetxe honetan ikasle batzuk oraindik absentistak direla, hots, nahitaezko etapetan ez dira erregulariki eskolara joaten. Beraz, saioak aurrera eramaterako orduan faktore oztopatzailea izan da ikasle absentistak egotea. Kontsultatutako ikerketa eta datu estatistikoek egiaztatzen dute ikasle absentisten ehuneko altu bat baliabide ekonomiko urriak eta bazterketa sozialaren arriskuan dauden testuinguruetatik datozela. Gainera, familia hauek hezkuntza formalaren gabeziagatik derrigorrezko hezkuntzaren garrantzia baztertzen dute (Domínguez, 2005).

Bestalde, zerbitzua aurrera eramateko ezinbestekoa izan da hasieratik arauak zehaztea. Honekin batera, Ochoa, Pérez eta Salinas-ek (2018) adierazten dute, eskolaren zeregin nagusienetarikoa bat ikasleak gizartean behar bezala moldatzea, pertsonekin elkarbizitza zuzena izateko prestatzea eta bizitza justuagoa ahalbidetuko duten balioak transmititzea da. Horretarako, bizikidetzaren arauak adostea ezinbestekoa izan da. Hala ere, arauen alorrean, eskolaren paperaz gain, familien, hedabideen eta beste gizarte eragile batzuen lana funtsezkoa da ere. Behin, faktore erraztatzaile eta oztopatzaileak aipatuta, ikasleek GAREN alderdi desberdinetan zailtasunak izan dituztela ikusi dut eta Robles et al.-ekin (2013) bat eginez, honen arrazoietakoa bat, Gorputz Hezkuntzako programazioetan GAK duen presentzia nahiko eskasa izan daiteke. Azken finean, praktikaren bitartez eta gai horren inguruko zenbat eta esperientzia gehiago izan, gure gorputzaren kontzientzia eta hitzez eta hitzik gabe komunikatzeko gaitasuna gehiago garatuko da eta onurak ekarriko ditu umearen garapen pertsonalean. Onura horiek Learreta, Ruano eta Sierra-k (2006) azaltzen dituzte, hala nola, GAK norberaren irudiaz kontzientziatzeko, aitortzeko, balioesteko eta onartzeko aukera ematen du.

*Helburuen lorpenari* erreferentzia zuzena eginez, lan honen xede nagusia Gasteizko ikastetxe batean, non ikasleek eskolaz kanpoko ekintzak ordaintzeko zailtasunak dituzten, GAREkin lotuta dagoen Ikaskuntza Zerbitzuaren berri ematea da, jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak azalduz. Helburu horri dagokionez, lorpenak egin direlakoan nago. Hala

ere, aurrera eraman behar nituen bost saioetatik lau eraman ditut aurrera. Azkeneko saioa egitea ezinezkoa izan baitzen Covid-19 birusagatik. Honekin batera, beste helburuetako bat Gorputz Adierazpenean murgiltzeko saio esanguratsuak ematea izan da eta esan dezaket helburu hori lortu egin dela. Horren lekuko da egunerokoan jasotako informazioa.

Beste helburuetako bat ikasleek jolasen bitartez keinu eta hitzik gabe adierazteko gaitasuna garatzea izan da. Helburu hau ikasletik ikaslera aldatu egin da, batzuk gaitasun hau gehiago garatu dute beste batzuk baino. Horrez gain, esan beharra dago, saiotik saiora ez zirela beti ikasle berdinak etortzen eta horregatik zaila izan da haien garapena ondo ikustea. Hala ere, saioetan zehar ikasleek helburu hau pixkanaka lortzen joan direla esan dezaket egindako jardueren bitartez. Esaterako, emozio eta egoera ezberdinak biziz, interpretatuz eta antzetzuz, besteen egoera emozionala identifikatuz, taldekatze ezberdinetan lan eginez, etab. Azken finean, nahiz eta bakoitzak bere abileziak edo zailtasunak izan, denen artean nik planteatutako helburuak lortzen saiatu dira jardueretik izandako sormen, interes eta inplikazioa oso handia izan delako.

Horrez gain, saioetan bizi izandakoan oinarrituz eta saio bakoitzaren amaieran egiten genuen hausnarketa kontuan hartuta, argi geratu da ikasleek horrelako saioak egiteko ohiturarik ez dutela eta mugimendu gehiagoko ekintzak eskatzen zituztela. Egia da, saiotik saiora jarduera desberdinak egiten genituenez, batzuk mugimendu gehiago zutela beste batzuk baino, eta mugimendu gutxiago zegoen saioetan ikasle batzuk mugimendu hori faltan botatzen zuten eta, askotan, horregatik aspertzen ziren. Beraz, GA Gorputz Hezkuntzako saioetan duen hutsunea ukazina da.

Azkeneko helburuei dagokionez, horietako bat irakasle izateko eskuratutako gaitasunak esperientzia berri honetan garatzea eta praktikan jartzea izan da eta lortu dudala esan dezaket. Argi dago zenbat eta esperientzia eta praktika gehiago orduan eta gehiago garatuko ditugula irakasle izateko gaitasunak. Honekin batera, esperientzia honen bitartez ere, eskola errealitate desberdin bat ezagutzeaz eta egokitzeaz gain, nire irakasle formakuntza garatzen lagundu didate ere. Baita ere, lan honen helburuetako bat Ikaskuntza Zerbitzuak ekar ditzakeen onurez jabetzea da eta esperientzia honen bitartez, herritar moduan gizartearen eraldaketa egoera bati aurre egiteko konpromisoa eta erantzukizun soziala bultzatzea beharrezkoa dela jabetu naiz. Gauzak horrela, etorkizun ez urrun batean, Ikaskuntza Zerbitzuak ekar ditzakeen onurak ikusita, metodologia hau aurrera eramateko aukera izango banu baiezkoa emango nuke dudarik gabe ikasleek esperientzia aberasgarri eta esanguratsu bat bizitzeko aukera dutelako.

## 7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Behin, zerbitzua amaituta eta egindakoaren inguruan hausnartuta esan beharra dago lan honek mugak eta era berean, hobetzeko aspektuak dituela. Mugei erreferentzia eginez, lan honek izan duen mugarik handiena Covid-19 birusa izan da. Arrazoi horregatik, ematen ari nintzen zerbitzua bukatu gabe gelditu da. Hau da, azkeneko saioa (5.saioa) ematea ezinezkoa izan zen egun horretan bertan Gasteizeko eskola guztiak itxi zituztelako. Hala ere, aurretik egindako saioetan oinarrituz lanarekin aurrera egin dut. Nahiz eta gutxi gorabehera buruan nituen helburuak bete diren, lan honetan zehar hobetzeko alderdi batzuk identifikatu ditut. Hobetzeko aspektuak daudela jakinda, horrek hurrengo baterako beste modu baten egiteko aukera eskaintzen dit. Hasteko, egindako sekuentzia didaktikoan hainbat hobekuntza egingo nituzke. Alde batetik, kontuan hartu behar nuen talde honetako ikasleak haien artean ez zirela ezagutzen eta hori aurreikusita ezagutza jolasei garrantzi gehiago emango nieke eta horrela, giro seguruago bat sortuko litzateke. Honekin batera, irakasle bezala nire taldearen inguruan gehiago jakitea gustatuko litzaidake egindako esku-hartzea haien beharretara gehiago egokitzeko. Horretarako, interesgarria izango litzateke, aldeztatik bilera bat egitea ikasle hauen tutoreekin haien ezaugarrien berri izateko. Baita ere, egindako jarduerak egin aurretik zelan joango ziren aurreikusi behar nituen ondoren erabaki zuzenak hartzeko. Horrez gain, aurrera eramandako saioetan taldekatzeen inguruan gehiago sakondu beharko nuke, askotan taldekatzeak egiterakoan ikasleek nahi zuten moduan elkartzeko zirelako eta agian, egokiagoa izango litzateke taldekatzeak egiterakoan bai sexu eta adina kontuan hartzea, eta ez ausaz egitea. Bestalde, denboraren kudeaketari dagokionez, gabezia handiak izan ditut eta aurrera eramanez nahi nituen jarduerak guztiak ezin izan ditut praktikan jarri. Beraz, hurrengo baterako denbora hobetu kudeatu beharko nuke.

Aurrekoarekin jarraituz, ikasleei dagokienez, haien sentimenduen inguruan zerbait gehiago jakin nahi nuen, haiekin hitz egiteko denbora gehiago izan eta horrela, saioetan egindako jardueren inguruan eta zuten ikuspegiaren berri izan. Horren bitartez, hurrengo baterako hobekuntzen inguruan hausnartzeko aukera gehiago izango nituzke. Zoritxarrez, denbora falta zela medio, ez nuen haiekin hitz egiteko denbora handirik izan, saioak azkar batean igarotzen zirelako. Baita ere, ikasleek egunero betetzen zuten autoebaluazioa modifikatuko nuke. Kasu honetan dionan zeuden lau galderen bitartez, nahiko bisuala ikusten zen ikasleek saioan zehar bizitakoa, baina galdera horietako bat agian aldatu edo egokituko nuke, ez didalako informazio handirik eman. Honako hau izan da galdera: zerbait ikasi dut?. Nahiko galdera irekia da eta askotan ikasleak nahiz eta zerbait ikasi duten gehienetan ez dira

horretaz kontziente izan. Beraz, galdera beste modu batean planteatuko nuke, esaterako, zer ikasi duzu?. Galdera horren bitartez agian saioan zehar egindakoaren inguruan hausnartzeko aukera dute eta horrela, egindakoaren kontzientzia gehiago hartu dezakete.

Amaitzeko, sekuentzia didaktikoa aurrera eramateko espazio bere osotasunean erabiltzen hobeto nahiko nuke. Izan ere, beti espazio berdina erabiltzen genuen eta ez dugu guztiz ikastetxeak eskaintzen zituen baliabide guztiak erabili. Kasu honetan zerbitzua aurrera eraman dudana polikiroldegian ikasleek gustuko zuen koltxoneten eremu bat zegoen eta ez diogu erabilerarik eman. Beraz, hurrengo baterako espazio desberdinak eta baliabide desberdinak erabiltzen saiatuko nintzateke, esku-hartzea geroz eta aberasgarriagoa izateko. Azkenik, hobetze aldera, ikasketa buruari komentatuko nioke saioetara etortzen ziren ikasleek arropa erosoak ekartzeko, izan ere, egiten genituen jarduerak burutzeko hobe zen arropa eroso eramatea.

## 8. ERREFERENTZIAK

- Arguedas, C. A. (2004). La expresión corporal y la transversalidad como un eje metodológico construido a partir de la expresión artística. *Revista Educación*, 28(1), 123-131.
- Arteaga, M. (2003). *Fundamentos de la Expresión Corporal*. *Ámbito pedagógico*. Grupo Editorial Universitario: Granada.
- Bates, A. J. (2009). Service Learning as an Instructional Strategy for the Preparation of Teachers. *Journal of Effective Teaching*, 9(1), 5-23.
- Bolaños, G. (1991). *Educación por medio del movimiento y la Expresión Corporal*, San Jose (Costa Rica): EUNED.
- Castillo, E., eta Rebollo, J. A. (2009). Expresión y comunicación corporal en Educación Física. Webgune honetatik berreskuratuta: <http://rabida.uhu.es/dspace/bitstream/handle/10272/3317/b15549859.pdf?sequence=1>
- Community Service-Learning Center (2014). Benefits of Social Learning. University of Minnesota. Kontsultatuta 2019ko urriaren 14an, in <http://www.servicelearning.umn.edu/info/benefits.html>
- Costa, A., eta Almendro, C. (2004). Los incidentes críticos una forma de abordar los problemas en bioética en grupo. *Educación Médica*, 19(1), 1-4.
- Coterón, J., eta Sánchez, G. (2010). Educación artística por el movimiento: la expresión corporal en educación física. *Aula E-revista Digital Usal*, 16. Kontsultatuta 2019ko urriaren 29an, in [http://rca.usal.es/~revistas\\_trabajo/index.php/0214-3402/article/view/7436](http://rca.usal.es/~revistas_trabajo/index.php/0214-3402/article/view/7436)
- Díaz, V. (2006). Formación docente, práctica pedagógica y saber pedagógico. *Laurus*, 12, 88-103.
- Domínguez, A. (2005). Absentismo escolar y atención a la diversidad. *Indivisa: Boletín de Estudios e Investigación*, 6, 259-267.

- Furco, A. (2003). Issues of Definition and Program Diversity in the Study of Service-Learning. En S. H. Billig y A. S. Waterman (Eds.), *Studying Service-Learning: Innovations in Education Research Methodology* (11-30). Mahwah (Nueva Jersey): Lawrence Erlbaum Associates.
- Gezuraga, M., eta Herrero, M. A. (2017). El aprendizaje servicio en universidades de Buenos Aires: avanzando hacia su institucionalización. *Revista Iberoamericana de ApS*, 3, 4-22.
- Guerrero, J. (2014). El valor de la auto-etnografía como fuente para la investigación social: del método a la narrativa. *Azarbe, revista internacional de trabajo social y bienestar*, (3). Webgune honetatik berreskuratua: <https://revistas.um.es/azarbe/article/view/198691/161851>
- Guerrero, M. (2009). La Expresión Corporal. *Innovación y Experiencias Educativas*, 2. Kantsultatuta 2019ko azaroaren 11n, in [https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero\\_13/AMALIA\\_MORENO\\_2.pdf](https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_13/AMALIA_MORENO_2.pdf)
- Ipi Sansomendi (2020). Webgune honetatik berreskuratuta: <https://ipisansomendi.hezkuntza.net/eu/inicio>
- Jornet, J., González, J., eta Sánchez, P. (2014). Factores contextuales que influyen en el desempeño docente. *Revista Iberoamericana de Evaluación Educativa*, 7(2), 185-195.
- Learreta, B., Ruano, K., eta Sierra, M. A. (2006). *Didáctica de la Expresión Corporal: talleres monográficos*. Barcelona: INDE
- Luna, E. (2010). *Del Centro Educativo a la Comunidad: un programa de aprendizaje-servicio para el desarrollo de ciudadanía activa*. [tesis doctoral]. Barcelona: Facultad de Pedagogía.
- Martínez, B., eta Martínez, I. (2015). El aprendizaje servicio y la formación inicial de profesionales de la educación. *Revista de Currículum y Formación del Profesorado*, 19(1), 245-260.
- Martínez, B., Martínez, I., Alonso, I., eta Geruzaga, M. (2013). El aprendizaje-servicio, una oportunidad para avanzar en la innovación educativa dentro de la Universidad del País Vasco. *Tendencias Pedagógicas* 21, 99-117.
- Motos Teruel, T. (2010). Teatro imagen: expresión corporal y dramatización. *Aula: Revista de Pedagogía de la Universidad de Salamanca*, 16, 49-73.
- Ochoa, A., Pérez, L. M., eta Salinas, J. J. (2018). El aprendizaje-servicio (APS) como práctica expansiva y transformadora. *Revista Iberoamericana de Educación*, 76, 15-34.
- Puig, J. M., Batlle, R., Bosch, C., eta Palos, J. (2007). *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía*. Barcelona: Octaedro.
- Puig, J. M., eta Palos, J. (2006). Rasgos pedagógicos del Aprendizaje y Servicio. *Cuadernos de Pedagogía*, 357, 60-63.
- Puig, J. M., Gijón, M., Martín, X., eta Rubio, L. (2011). Aprendizaje-servicio y Educación para la Ciudadanía. *Revista de Educación*, 1, 45-67.



- Rendón, M. Á. (2015). La lógica del sistema categorial de la bibliotecología y estudios de la información documental. Un análisis dialéctico. *Logeion: Filosofia da Informação*, 1(2), 49-68. Webgune honetatik berreskuratua: <http://revista.ibict.br/fiinf/article/view/1486/1664>
- Robles, J., Abad, M. T., Castillo, E., Giménez, F. J., eta Robles, A. (2013). Factores que condicionan la presencia de la expresión corporal en la enseñanza secundaria según el profesorado de educación física. *Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, 24, 171-175.
- Rodríguez, V. R. (2008). El mejoramiento de la salud a través de la expresión corporal: un enfoque holístico. *Reflexiones*, 87(1), 127-137.
- Root, S. (2005). Improving Service-Learning Practice: Research on Models to Enhance Impact. En: S. Root, J., Callahan eta S. Billig (Eds.), *The National Service-Learning in Teacher Education Partnership: A Research Retrospective*. Greenwich: Information Age
- Rubio, L. (2007). *Aprendizaje y servicio solidario*. Bilbao: Zerbikas Fundazioa.
- Sigmon, R. L. (1994). *Linking Service with Learning*. Washington DC: Council of Independent Colleges.
- Tapia, M. (2006). *Aprendizaje y Servicio Solidario*. Buenos Aires, Argentina: Ciudad Nueva.
- Tapia, M. N. (2000). *Solidaridad como pedagogía*. Buenos Aires: Ciudad Nueva.
- Tapia, M. N., González, A., eta Elicegui, P. (2005). *Aprendizaje y servicio solidario en las escuelas argentinas: una visión descriptiva a partir de las experiencias presentadas al Premio Presidencial Escuelas Solidarias (2000-2001)*. Washington University: Global Service Institute. Kontsultatuta 2019ko azaroaren 8an, in [https://openscholarship.wustl.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1493&context=csd\\_research](https://openscholarship.wustl.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1493&context=csd_research)
- Villada, P. (2003). La expresión corporal en el curriculum escolar. En M. Vizuete (Eds.). *Los lenguajes de la expresión*, (133- 155 or.). Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia.
- Vizcarra, M. T., (2010, koord.). *Gorputz adierazpena lehen hezkuntzan*. Bilbo: EHUko Ikasmaterialen Sare Argitalpenak.

# ERANSKINAK

## GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Arin Ferre, Miren.

ZUZENDARIA: Vizcarra Morales, Maria Teresa.

**2020**

## 9. ERANSKINAK

### 1. Eranskina: *Jarrera ausartak gometxen bitartez*

LHko 1. eta 2. mailak

LHko 3. eta 4. mailak

LHko 5. eta 6. mailak

### 2. Eranskina: *Bostekoa*

A...

Lana

Txukuntasuna

Esfortzua


Arreta

Talde-lana eta laguntasuna


### 3. Eranskina: Komunitate araua




### 4. Eranskina: Tratu onaren dekalogoa



5. Eranskina: Batzuetan edo askotan tratu txarrak jasan dituen ikasleen portzentaia




6. Eranskina: Diana



7. Eranskina: Sekuentzia didaktikoa

1.SAIOA	
<b>Saioaren helburuak</b>	Ikaslearen aurrezagutzak eta GAREN maila identifikatzea eta gorputz adierazpenean murgiltzea.
<b>Eguna</b>	2020/02/03
<b>Non</b>	Polikiroldegia
<b>Materiala</b>	Bozgorailua, abesti desberdinen bilduma, mimika-jolaserako kutxa, autoebaluazio-orria, pilota, koloretako margoak eta gometak.
<b>Denbora</b>	50 minutu
<b>Maila</b>	1.2.3.maila
<b>Ikasle kopurua</b>	12

JARDUERAK	
<b>1. Jarduera: Aurkezpena</b> <span style="float: right;"><b>Denbora: 10 minutu</b></span>	
<p>Irakasle eta ikasleak batera borobilean jarrita aurkezpena egingo dugu. Irakasle bakoitzak bere burua aurkeztuko du. Ondoren, bi irakasle on artean zertara gatozen eta 5 saio hauetan zehar zer egingo dugun azalduko diegu. Hau da, irakasleek unitate didaktikoaren aurkezpena egingo dute. Irakasleek ikasleei honako galdera hauek egingo dizkiete gaiaren inguruko aurre-ezagutzak identifikatzeko: GA zer da? Antzerkia, dantza, egiten duzue? Ba al dakizue zer den mimika? etab.</p> <p>Gero, irakasleak unitatearen helburua zein den zehaztuko du, eta horretarako egingo diren jarduerak azalduko ditu: mimika-jolasa, dantzak, besteak beste. Ondoren, saio honetan zer landuko den eta zein helburu lortu nahi den azalduko du irakasleak.</p>	
<b>2. Jarduera: “Giza estatuak gara”</b> <span style="float: right;"><b>Denbora: 5 minutu</b></span>	

Irakasleak musika jarriko du eta ikasleak nahi duten bezala baina musikaren erritmora mugituko dira. Irakasleak musika eteten duen bakoitzean giza estatuak izango balira bezala gelditu beharko dira, berriro musika hasi arte. Horrela, etengabe arituko dira, musika eteten den bakoitzean forma ezberdinak irudikatuz.


Araua:

- Estatua aldatu, ezin dute errepikatu aurreko berdina.
- Estatua bezala 5 segundoz mantendu



**3. Jarduera:** "Taldekatzek" **Denbora:** 3 minutu

Aurreko jarduerarekin jarraitzeko irakasleak adierazten duen kopuruaren arabera taldeak osatuko dituzte: 4, 3, 5, 10, 7,... . Bitartean ikasleak nahi duten moduan dantzatzeko ibiliko dira. Azken zenbakia 3 izango da eta, horrela, hurrengo jokorako taldeak eginda utziko ditugu.



**4. Jarduera:** "Musikaren erritmoan dantzan" **Denbora:** 5 minutu

Ikasleak hiruak jarriko dira fila batean. Ikasleek gidariak (filako lehenengo pertsona) egiten dituen pausuak jarraitu eta kopiatu beharko dituzte. Aldaketa esandakoan, gidaria filaren atzeko aldera joango da eta beste gidari berri bat beste pausuren bat egiten hasiko da. Horrela, filako guztiek egin arte.




**5. Jarduera:** "Mimika jolasa" **Denbora:** 10 minutu

Klase osoa borobilean antolatuta, borobilaren erdian 20 txartel egongo dira guztira kutxa batean. Binaka lurretik txartel bat hartuko dute. Beste ikasleei sentimentua, egoera edo kirol bat den esango die. Honen ostean, besteen aurrean antzestu beharko dute egokitu zaien txarrela.



**6. Jarduera:** "Zatorra" **Denbora:** 7 minutu


Ikasleak borobilean eseriko dira eta 2 ikasle borobiletik irtengo dira momentu bat. Borobilean daudenak pilota txiki bat (zatorra) izango dute eta batetik bestera pasatzen joango dira bizkarren atzetik. Borobiletik irtendako ikasleak pilota nork duen asmatzen saiatuko dira. Borobilean daudenak, nahiz eta pilota ez izan, erdikoak despistatzen saiatu daitezke. Erdikoak bi aukera izango ditu pilota non dagoen esateko. Erdikoak asmatzen badu, pilota zeukana erdian jarriko da. Erdikoak pilota non zegoen ez badu asmatzen, ausaz norbait erdira joango da



**7. Jarduera:** Saioari amaiera

**Denbora:** 5 minutu

Aurreko jardueratik ikasle guztiak zirkuluan batera gaudenez aprobetxatuz, saioari bukaera emango diogu. Irakasleak ikasleei hainbat galdera egingo dizkie saioaren inguruan: Gustatu zaizue gaurko saioa? Zer da gehien gustatu zaizuen? Ondo pasatu duzue?. Ondoren, ikasle bakoitzak autoebaluazioa egingo du eta talde osoaren artean talde jarrera nolakoa izan den jarriko dugu ikasle eta irakaslearen artean (gometxen bitartez).







2.SAIOA	
<b>Saioaren helburuak</b>	Garen oinarrizko teknikak erabiliz, pertsonaiak, egoerak eta irudiak antzeztea.
<b>Eguna</b>	2020/02/10
<b>Non</b>	Polikiroldegia
<b>Materiala</b>	Bozgorailua, abesti desberdinen bilduma, uztailak, mimika-jolaserako kutxa autoebaluazio-orria.
<b>Denbora</b>	50 minutu
<b>Maila</b>	1.2.3.maila
<b>Ikasle kopurua</b>	12

### JARDUERAK

**1.Jarduera:** Saioaren aurkezpena

**Denbora:** 10 minutu



<p>Ikasle guztiak borobilean jarrita irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.</p>	
<p><b>2.Jarduera:</b> “Uztaien etxea” <span style="float: right;"><b>Denbora:</b> 10 minutu</span></p>	
<p>Uztaiak, etxeak izango balira,12 ikasle badira 9 uztail egongo dira zelaian zehar banatuko dira. eta hiru ikasle uztairik gabe geratuko dira. Musika ari den bitartean zelaian zehar dantzatuko dute eta, musika gelditzean, etxe batean sartu beharko dira. Etxean sartu izan ez direnen artean emozio bat adierazi beharko dute eta beste taldekideek asmatu. Ondoren, berriro ere ekintza berdina errepikatuko da.</p>	
<p><b>3.Jarduera:</b> “Ispilua” <span style="float: right;"><b>Denbora:</b> 7 minutu</span></p>	
<p>Binaka. Ikasleak bata bestearen aurrean jarriko dira, eta bietako batek nahi dituen mugimendu eta keinuak egingo ditu, eta besteak, ispiluaren parean egongo bailitzan, bikotea imitatuko du. Irakasleak esango du rolak noiz aldatuko dituzten.</p> <p>*Tutifrutu esaterakoan bikotez aldatu beharko dira</p>	
<p><b>4. Jarduera:</b> “Zoru desberdinak” <span style="float: right;"><b>Denbora:</b> 5 minutu</span></p>	
<p>Banaka. Ikasleak gimnasioan sakabanatuko dira. Irakasleak hainbat zoru-egoera deskribatuko ditu, banan-banan, eta ikasleek zoru horren gainean nola ari diren mugitzen antzetzuko dute. Horrez gain, zenbakiekin dantzan arituko dira. Gelan zehar banatuko dira, eta musika jarriko zaie. Irakasleak zenbakiak esango ditu: 1 esatean, txaloak emango dituzte; 2 esatean, oinekin zarara; eta 3 esatean, txalo eta izterretan jo.</p> <p>Hona hemen hainbat zoru-egoeren adibideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zoru irristakorra</li> <li>- Lokatzez betetako zorua</li> <li>- Txiklez betetako zorua</li> <li>- Txingarrez betetako zorua</li> <li>- Bustitako zorua</li> <li>- Itsasoak</li> <li>- Errekak</li> </ul>	


-“Zelaian zutik gauden izotzezko panpinak gara. Eguzkiak gogor jotzen du eta pixkana urtzen hasi gara. Azkenik urputzu batean bihurtu gara”. Zoru-egoeraren arabera, ikasleek ibiltzeko modu bat edo beste antzetzuko dute, gorputz-mugimenduak, keinuak eta soinuak erabiliz.

**6. Jarduera:** “Museoa” **Denbora:** 15 minutu

Bi taldetan. Bi taldeek museo bana sortu beharko dute jarduera honetan horretarako beren museoa nolakoa izango den eta bertan zer erakutsiko duten erabakiko dute. Museoan ikusiko diren piezak ikasleek irudikatuko dituzte, eta horretarako ikasle bakoitzak zein forma hartuko duen erabakiko dute. Irakasleak, zein museo mota irudikatuko duten erabakitzen laguntzeko, honelako adibideak emango ditu:


- Beldurrezko museoa
- Animalia-museoa
- Lanbideen museoa
- Kirolen-museoa

Museoaren antzezlanaren prestatzeko hamar minutu izango dituzte taldeek. Ondoren, bi taldeetako bat gimnasiotik irtengo da, eta bisitarien rola beteko du. Bitartean, beste taldeak museoa prestatuko du, eta horretarako ikasle bakoitzak bere lekua eta irudia hartuko du; eta geldirik geldituko dira bisitariak sartu aha izateko. Behin museoa prestatu ondoren, irakasleak kanpoan dagoen taldeari sartzeko esango dio, eta horiek museoaren bisitatuko dute; eta ikasle bakoitzak tokatu zaion irudia irudikatuko du. Ondoren, bisitaria izan den taldeak prestatuko du museoaren bisitariaren rola jokatu du.






**8. Jarduera:** Saioari amaiera **Denbora:** 5 minutu

Saioari bukaera emango diogu. Irakasleak ikasleei hainbat galdera egingo dizkie saioaren inguruan: Gustatu zaizue gaurko saioa? Zer da gehien gustatu zaizuen? Zailak ala errazak iruditu zaizkizue proposatutako jarduerak? Ondoren, autoebaluazio orria beteko dute ikasleek eta talde osoaren artean talde jarrera nolakoa izan den jarriko dugu ikasle eta irakaslearen artean (gometxen bitartez).




3.SAIOA	
<b>Saioaren helburuak</b>	GAren oinarrizko teknikak erabiliz, pertsonaiak, egoerak eta Irudiak antzeztea.
<b>Eguna</b>	2020/02/17
<b>Non</b>	Polikiroldegia
<b>Materiala</b>	Bozgorailua, abesti desberdinen bilduma, mimika-jolaserako kutxa, autoebaluazio-orria eta arkatzak.
<b>Denbora</b>	50 minutu
<b>Maila</b>	1.2.3.maila
<b>Ikasle kopurua</b>	12


JARDUERAK	
<b>1.Jarduera:</b> Saioaren aurkezpena <b>Denbora:</b> 5 minutu	
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.	
<b>2.Jarduera:</b> “Buztana kendu” <b>Denbora:</b> 5 minutu	
Beroketa moduan, zapiak buztan moduan jarriko dituzte prakaren atzeko aldean; zapi horiek partaideen artean lapurtu beharko dituzte. Buztanik gabe geratzen badira beste batengana abiatu daitezke buztan berri bat lortzera.	
<b>3.Jarduera:</b> “Bikotea aurkitzen” <b>Denbora:</b> 5 minutu	

<p>Talde osoa batera, ikasle bakoitza animalia bat izango da eta animalia horren soinua imitatu beharko du. Ikasle horrek bere animalia berdina duten beste ikasle batzuk aurkitu beharko ditu.</p> <p>Animaliak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Elefantea</li> <li>-Lehoia</li> <li>-Txoria</li> </ul>	
--	---


<b>4. Jarduera:</b> “Asmatu filma”	<b>Denbora:</b> 10 minutu
------------------------------------	---------------------------

<p>4 pertsonetako 3 talde egingo ditugu. Talde bakoitza film bat antzeztu beharko du. Horretarako, talde bakoitzak 10 minutu izango ditu filma mimikaren bitartez adierazteko. Ondoren, ikasle guztien aurrean talde bakoitzak bere filma aurkeztu beharko du eta besteak asmatzen saiatu beharko dira. Ikasleek nahi duten filma aukeratu dezakete baina ez badakite zein antzeztu irakasleak filma batzuen izenak eskainiko dizkio.</p> <p>Honako hauek izan daitezke filmak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Dori</li> <li>-Frozen</li> <li>-Cars</li> </ul>	
---	---

<b>5. Jarduera:</b> “Orkestra”	<b>Denbora:</b> 5 minutu
--------------------------------	--------------------------




<p>Guztiak biribilean eseriko dira eta bi gimnasioaren bazter batera joango dira. Biribilean dagoen bat zuzendaria izango da, eta nahi duen erritmoa markatuko du (txaloak, keinuak,..). Zuzendariak egiten dituen keinuak errepikatu beharko dituzte beste guztiek. Gelatik irten direnak nor den zuzendaria asmatu beharko dute horrela rol-aldaketa emanez.</p>	
--	---



<b>6. Jarduera:</b> Hausnartzeko momentua	<b>Denbora:</b> 5 minutu
---	--------------------------

<p>Aurreko jardueratik ikasle guztiak zirkuluan batera gaudenez aprobetxatuz saioari bukaera emango diogu. Irakasleak ikasleei hainbat galdera egingo dizkie saioaren inguruan: Gustuko izan duzue gaurko saioa? Zer izan da gehien gustatu zaizuen eta gutxiena?. Ondoren, autoebaluazio orria beteko dute ikasleek eta talde osoaren artean talde jarrera nolakoa izan den jarriko dugu ikasle eta irakaslearen artean (gometxen bitartez).</p>	
---	---

	<b>4.SAIOA</b>
<b>Saioaren</b>	Emozioak eta sentimenduak jende aurrean adierazi eta azaltzea GAREN bidez besteek

<b>helburuak</b>	egoera uler dezaten.
<b>Eguna</b>	2020/03/02
<b>Non</b>	Polikiroldegia
<b>Materiala</b>	Bozgorailua, abesti desberdinen bilduma, autoebaluazio-orria eta koloretako margoak.
<b>Denbora</b>	50 minutu
<b>Maila</b>	4.5.6.maila
<b>Ikasle kopurua</b>	12

<b>JARDUERAK</b>	
<b>1.Jarduera:</b> Saioaren aurkezpena	<b>Denbora:</b> 5 minutu
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.	
<b>2.Jarduera:</b> “1,2,3 Eguzki”	<b>Denbora:</b> 7 minutu
Bat, bi, hiru... Eguzki; pertsona bat hormaren aurrean dago, buelta emanda; hormarantz begira dagoenean, besteak nahi duten guztia mugi daitezke hormarantz gerturatuz; hormarantz iristen den lehenengo pertsonak irabaziko du. Mugitzen ari dela horman dagoenak 1,2,3 eguzki esatean buelta hartzen badu eta norbait mugitzen ikusten badu ibilbidea berriro hasi beharko du.	
<b>3.Jarduera:</b> “Argazkilaria”	<b>Denbora:</b> 10 minutu
Jarduera honetan, ikasleak 2 taldetan banatuta, ikasleek talde-argazki bat atera beharko dute, eta horretarako, ikasleen artean argazkilaria bat aukeratu dute ikasleen artean eta beste ikasleen aurrean kokatu da argazkia ateratzeko. Gainerako ikasleak talde-argazkian agertzeko moduan jarriko dira. Argazkilaria, orduan, taldeari argazki bat atera dion imintzioa egingo du, eta, aldi berean, gelakide bakoitza non kokatu den gogoratu beharko du. Horretarako, segundo batzuk besterik ez du izango, eta ikasleek esaten	

<p>dutenean, gainerako ikasleei bizkarra emango die. Orduan, ikasleen artean taldeko ikasle batek lekuz edo posizioa aldatuko du. Aldaketa egin bezain laster, argazkilariari berriro buelta emateko esan eta lekuz mugitu den ikaslea nor izan den asmatu beharko du argazkilariak. Argazkilariaren papera betetzen duen ikaslea aldatuz joango da, eta irakasleak emango dio bukaera jolasari.</p>	
<p><b>4. Jarduera:</b> “Istorio txiki bat antzezten” <span style="float: right;"><b>Denbora:</b> 10 minutu</span></p>	
<p>Talde osoa 3 taldetan banatuta, ikasleek irakasleak emandako egoera bat antzeztu beharko dute eta gero beste ikaskideei erakutsi. Horretarako, irakasleak talde bakoitzari esaldi bat emango dio eta irakurritakoa antzeztuko dute, baina, ezin izango dute hitz egin. Gainera, esaldi horrekin zerbait berria sortu beharko dute, istorio txiki bat.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Txakur polit bat ikusi duzue eta berarekin jolasten hasi zarete”</li> <li>- “ Igogailu baten barruan sartu zarete eta trabatuta geratzen da”</li> </ul>	
<p><b>5. Jarduera:</b> <span style="margin-left: 50px;">Hausnarketa momentua</span> <span style="float: right;"><b>Denbora:</b> 5 minutu</span></p>	
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta ikasleei ondorengo galderak egin ahal zaizkie: Ondo pasatu duzue? Zelan sentitu zarete? Ondoren, autoebaluazio orria beteko dute ikasleek eta talde osoaren artean talde jarrera nolakoa izan den jarriko dugu ikasle eta irakaslearen artean (gometxen bitartez).</p>	


5. SAIOA	
<b>Saioaren helburuak</b>	GAren teknikak erabiliz istorio bat sortzea.
<b>Eguna</b>	2020/03/09
<b>Non</b>	Polikiroldegia
<b>Materiala</b>	Bozgorailua, abesti desberdinen bilduma, autoebaluazio-orria koloretako margoak eta egunkariak
<b>Denbora</b>	50 minutu
<b>Maila</b>	1.2.3 maila

## JARDUERAK

**1.Jarduera:** Saioaren aurkezpena

**Denbora:** 5 minutu

Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.



**2.Jarduera:** “Zenbakiekin jolasean”

**Denbora:** 5 minutu

Ikasle guztiak batera espaziotik sakabanatuta egongo dira. Irakasleak zenbaki batzuen bitartez agindu batzuk esango ditu eta ikasleek musikaren erritmoan bete beharko dituzte,

Aginduak honako hauek izango dira, honak zenbaki hauek esaterakoan ikasleek zenbaki bakoitzari dagokion agindua bete beharko dute:

- 1: Txaloak eman
- 2: Hankekin zarata egin
- 3: Txaloak+ izterrak



**3.Jarduera:** “Egunkariarekin jolasean”

**Denbora:** 30 minutu

Ikasle bakoitzari egunkari orri bat emango zaio. Egunkari horrekin bakoitzak nahi duena sortuko du. Ondoren, 3 taldetan bilduko dira. Guztion artean adostu beharko dute dituzten objektuekin zer egin, hau da, objektuak erabiliz, istorio txiki bat antzestu beharko dute.




**4.Jarduera:** “Hausnarketa momentua + agurra”

**Denbora:** 5 minutu

Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta ikasleei ondorengo galderak egin diezazkieke: Ondo pasatu duzue? Zelan sentitu zarete?

Ondoren, autoebaluazio orria beteko dute ikasleek eta talde osoaren artean talde jarrera nolakoa izan den jarriko dugu ikasle eta irakaslearen artean (gometxen bitartez). Guztion artean agurra egingo dugu



## 8. Eranskina: Zerbitzua prestatzeko fitxa

Izen-abizenak: Miren Arin Ferre

<b>Izenburua</b>	Gorputz Adierazpena
<b>Eskola / Erakundea</b>	Ipi Sansomendi Ikas Komunitatea
<b>Zerbitzuaren helburua(k)</b>	
<p>1- Eskolaz kanpoko ekintzak ordaindu ezin ditzaketen ikasleei zerbitzu bat ematea.</p> <p>2-Ikaskide guztien inklusioa bultzatzea, gorputz adierazpenean oinarritutako jolasen bidez.</p> <p>3-Keinu eta hitzik gabe adierazteko gaitasuna garatu eta barneratu, betiere, ikaskideekiko errespetua izanik.</p> <p>4- Gorputzaren eta hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren bidez komunikatzeko eta adierazteko beharrezkoak diren jarrerak eta trebetasunak sustatzea.</p> <p>5-Ikaskideekiko errespetua sustatzea, norberaren eta besteen sentimenduengatik, norberaren adierazteko modu desberdinengatik eta bakoitzak egiten dituen ahaleginengatik</p> <p>6- Ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz gure Gorputz Adierazpeneko saioak egokitzea.</p>	
<b>Ekintzak</b>	
<p>Helburua lortzeko egin beharreko ekintzen ezaugarri zehatzak.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zerbitzua prestatzeko.</li><li>• Sarrera eskolan/erakundean eta taldean.</li><li>• Zerbitzua martxan dagoen bitartean.</li><li>• Itxiera.</li></ul> <p>Deskribapena: azpi-helburua, jarraibideak/pausoak, baliabideak (denbora, materialak...).</p>	
<b>Zerbitzua prestatzeko</b>	
<p>-Koordinazioa: zerbitzua eskaini aurretik egingo dudan kidearekin saioak prestatzeko elkartu.</p> <p>-GA lantzeko dagoen materiala behatu, aztertu eta gure saioetara egokitu.</p> <p>-Lortu nahi ditudan helburuak zehaztu.</p> <p>-Ikasleekin egingo dudan autoebaluazioa eta koebaluazioa prestatu.</p>	
<b>Sarrera eskolan eta taldean</b>	
<p><b>Eskolan:</b></p> <p>-Eskolaren errealitatea ezagutu: ezaugarriak, ikasleen tipologia, metodologia, instalazioak, etab.</p> <p><b>Ikasle taldean:</b></p> <p>-Guztion (irakasle eta ikasle) aurkezpenak</p> <p>-Hurrengo saioetan egingo denaren azalpena</p>	



- Segurtasun giro bat sortu (lotsak alde batera utziz).
- Ikasleen ezaugarriak identifikatu hurrengo egunetako saioak egokitzeke.

### Zerbitzua martxan dagoen bitartean

Gure proposamena Gorputz Adierazpenean oinarritzen da. Ikasleak talde txikietan edo banaka lan egingo dute, egiten den jarduera motaren arabera eta helburua ikasleek gorputzaren bitartez adierazten ikastea izango da. Proposatuko diren jardueren bitartez, ikasle guztiek ikaskide guztiekin lan egiteko aukera izango dute. Azken egunean, ikasleek amaierako produktu bat egingo dute eta saiotik saiora egin duten garapena ikusteko momentua izango da. Egunero egingo den azken jarduera taldeko autoebaluazioa eta koebaluazioa izango dira.

Aipatzekoa da, saioek honako egitura hau izango dutela: Proposamena aurrera eramateko garaian, lehenengo egunean esku-hartzearen inguruko aurkezpena egingo da. Saioen antolaketari dagokionez, hasieran beti beroketa txiki bat egingo da (aktibazio fasea). Ondoren, jarduera desberdinak egingo dira. Jarduera hauek progresio bat eramango dute, bai taldekatzen aldetik bai zailtasun aldetik. Hau da joko gidatuagoetatik, joko irekiagoetara pasatzen saiatuko gara. Hau da, lehenengo jarduerak ez dute imajinazio askorik behar izango, bukaeran, ordea, sormen gehiago eskatuko duten jarduerak proposatuko dira. Saioarean amaieretan, elkartze momentuan eta denak borobilean jarrita irakasleak bideratutako hausnarketa txiki bat egingo da eta honen ostean, ikasleek autoebaluazioa eta koebaluazioa egin beharko dute.

- Autoebaluazioa

Ikasleen autoebaluazioa egiteko diana bat erabiliko dugu. Bertan, diana 4 zatitan banatuta agertzen da eta zati bakoitzak galdera bat du. Honako hauek dira galderak: Ondo portatu naiz? Arauak eta kideak errespetatu ditut? Ondo pasatu dut? Zer bait ikasi dut?. Ikasleek galdera hauei 1etik 5 erako zenbakietako bat koloreztatuz egin beharko dute, 1 zenbakiak txarto adieraziz eta 5 zenbakiak berriz, oso ondo. Ondoren, ikasle bakoitzak, taldeko mural batean bere ustez ze jarrera izan duen adierazi beharko du gometx batzuen bitartez; gorria, laranja, horia, berdea eta urdina. Kasu honetan, jarrera txarra izan badu gorria jarriko luke eta jarrera oso ona izan balu berriz, urdina.

**1. Saioa: Gari sarrera**

**2. Saioa: Gorputz Adierazpenean murgiltzen**

**3. Saioa: Gorputz Adierazpenean murgiltzen**

**4. Saioa: Gorputz Adierazpenean murgiltzen**

**5. Saioa: Zerbitzuari amaiera**

### Itxiera

Azkenengo saioan emango diogu itxiera zerbitzu honi. Horretarako, ikasleek azkenengo produktu bat egin beharko dute, antzezlan txiki bat hain zuzen ere.

## Kronograma

Ekintzen egutegia.

Sekuentzia didaktikoan (ikus 9. eranskina) aurki daiteke egun bakoitzean egingo diren ekintzak. Saio bakoitzak 40 minutuko iraupena dauka.

Data / Denbora-tartea	Ekintza
Otsailak 3 (13,00-14:45)	GAri sarrera
Otsailak 10 (13,00-14:45)	Gorputz Adierazpenean murgiltzen
Otsailak 17 (13,00-14:45)	Gorputz Adierazpenean murgiltzen
Martxoak 2 (13,00-14:45)	Gorputz Adierazpenean murgiltzen
Martxoak 9 (13,00-14:45)	GAri amaiera (egin gabe)

## Dokumentazioa

Informazioa nola jasoko duzu?

Behaketa - BAI

Egunerokoa- BAI (Egunero behaketaz baliatuko gara umeen jarreran, parte-hartzean, sortutako zailtasunetan eta gainontzeko jokabideak kontuan hartuz)

Parte-hartzaileekin elkarrizketak -BAI

Ebaluazioak- BAI ( zerbitzuan ikasleek autoebaluazioa eta koebaluazioa egingo dute)

Gogoetak – BAI

## 9. Eranskina: *Narrazioa etnografikoaren gidoia (ikertzailearen egunerokoa)*

### **Narrazioa etnografikoak (ikertzailearen egunerokoa)**

1. Bizi izandako esperientziari buruzko anekdotak
2. Planifikazioari buruzko oharrak, aspektu metodologikoak, harremanei buruzkoak, emozionalak eta egindako ikasketei buruzkoak.
  - a. Antolamenduari buruzko oharrak: espazioa/denbora/ materiala/ezarri behar diren arauak, eta honi guztiari buruzko zalantzak eta hausnarketak
  - b. Metodologiari buruzkoak: materialaren aukeraketa/ jardueren justifikazioa eta diseinua...
3. Proposamen didaktikoaren aurkezpena (nola aurkeztu/proposatu den ikasleen aurrean)
  - a. Proposamenaren aurrean, zer egin duten ikasleek, nola erantzun duten, zer egin duten edo zer sortu duten
  - b. Nola bukatu duten eginiko proposamena
  - c. Deskribatu taldean ematen diren harremanak eta lidergo motak, ohiturak...
  - d. Ikasleekiko ezartzen dituzten loturak/afektuak/sentimenduak
  - e. Ikasleek nola baloratu duten
  - f. Irakasleekiko eta Unibertsitateko kideekiko harremana eta euren arteko laguntza.
  - g. Irakasle/begiralearen rola nolakoa den (baleude)
  - h. Nola baloratu duten eginikoa ingurukoek
  - i. Nola sentitu naiz? urduri, pozik, zalantzak izan ditut, hartu ditudan erabakiekin...
  - j. Gaur ikasi dut...
4. Faktore erraztatzaileak eta oztopatzaileak proposamen didaktikoa aurrera eramateko
5. Inzidente kritikoen narrazioa (mediazioa edo dinamizatzailearen interbentzioa baloratzeko)
  - a. Zer nolako gertaera deskribatzen dugun
  - b. Zer nolako garapena izan duen
  - c. Hartutako jarrera
  - d. Erantzun posibleak aztertu
  - e. Hartutako erantzuna baloratu
6. Ebidentziak txertatu (argazkiak, ahotsak, grabazioak, idazkiak,...)
7. Eguneko ondorioak

## 10. Eranskina: Zuzendariari eginiko galdetegia

### GrALetan landu beharreko kompetentzien lorpen mailaren inguruko GALDEKETA

Ikastegia: \_\_\_\_\_  
Ikaslea(k): \_\_\_\_\_

Galde-sorta honen bidez jakin nahi dugu ea zerbitzuak ikastegiarentzat merezi izan duen. Horretarako, mesedez, esaldi bakoitzean markatu ERANTZUN BAKARRA:

1. Merezi izan du egin ditugun ekintzak egitea?

GUTTIZ merezi izan du 4	NAHIKO merezi izan du 3	EZ du ASKO merezi 2	EZ du BATURERIK merezi 1	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi 0
----------------------------	----------------------------	------------------------	-----------------------------	--------------------------------------

EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIALTASUNEZ ERABILIKO DA.

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIKI!

Baloratu itzazu hurrengo atalak:

GAITASUNAK	GUTTIZ	NAHIKO	EZ OSO	BATERE EZ	Ez Dakit/ Ez
<b>EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIALTASUNEZ ERABILIKO DA.</b>					
<b>ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIKI!</b>					
1.2. ...irakaskuntza eta ikaskuntzarekin lotutako arazoak konpontzea?	4	3	2	1	0
1.3. ...ezagutza berria sortzea?	4	3	2	1	0
<b>2. Eskola</b>					
2.1. Zuk ikusi eta entzundakoaren arabera, burututako esku-hartzea arrakastatsua izan da?	4	3	2	1	0
2.2. Burututako esku-hartzea egokia eta eraginkorra izan da ikasleentzat?	4	3	2	1	0
2.3. Iruditzen zaizu horrelako ekimenekin zure ikastegiko ikasleek euskararen gaitasuna eta erabilera hobetzen dutela?	4	3	2	1	0
<b>3. Eskolatzeko-prozesuak hobetu</b>					
3.1. Hobekuntza/berrikuntza proiektuak ballagarriak dira irakaslegaientzat eskolan garatu beharko dituzten gaitasunak hobetzeko?	4	3	2	1	0
3.2. Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaientzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoaren aurrean ...					
3.2.1. ... autonomia erakusteko?	4	3	2	1	0
3.2.2. ... hausnarketa egiteko eta argudiatzeko?	4	3	2	1	0
3.2.3. ... iritzia akademiko eta profesionalak emateko?	4	3	2	1	0
3.3. Uste duzu irakaslegaien profil profesionalerako onuragarriak direla horrelako ekimenak?	4	3	2	1	0
3.4. Ikastegi honetako ikasleentzat onuragarria izan da horrelako ekimen batean parte hartzea?	4	3	2	1	0
3.5. Gustatuko litzaizuke hurrengo urtean horrelako zerbait egitea?	4	3	2	1	0
3.6. Nola hobetu dalteke prozesu hau?					

## 11. Eranskina: Saioak ebaluatzeke errubrika

SAIO EBALUATZEKO ERRUBRIKA					
*1 gutxi eta 5 bikain izanda, hurrengo galderei erantzun gurutze bat jarritz.					
	*1	2	3	4	5*
Segurtasun giroa bermatu da					
Emozio positiboak nagusitu dira					
Emozio negatiboak nagusitu dira					
Ikasleak gustura egon dira					
Ikasleen konfiantza bereganatzea lortu dut					
Irakaslearen azalpenak egokiak izan dira					
Irakasleak ikasleak motibatu egin ditu					
Irakaslearen <i>feed-back-a</i> egokia izan da					
Irakasleak beharrezkoak baldin izan bada aldaerak sartu ditu					
Aurreko saioan hobetzeko zeuden aspektuak (egon baziren) hobetu dira					
Jarduerak ikasleen garapen mailarentzako egokiak izan dira					
Irakasleak gatazkak modu egoki batean bideratu ditu					
Jarduerak jarraitasun egokia izan dute					
Jarduerak aurreko saioetan egin diren saioekin lotura izan dute					
Saioa esku-hartzearen helburuak lortzen lagundu du					
Jarduerak GA lantzeko egokia izan dira					
Denboraren kudeaketa egokia izan da					